

B

BARREN

B

Gabon Zahar Feria
Sutondoa

Gaua Elurra Oporrak

Mahatsak *Jostailuak*

Hator, hator... *konpota*

Jaiak kotiloiak lurrinak eta pijamak

infernua

Danbolina

DANTZA Krisia **2009**

Jaiotza

Horra! Horra! **Gorostia**
Zuhaitza **IZOTZA** *mazapana*

BILDOTSA

Ajea Parranda **Txin-txin**

Pipa

BAKEA Alaitasuna *Kabalgata*

dilin-dalan **LANGOSTINOAK**

Urte berri on Gabon kantak **Ura**

Poza

aspaldiko

IRRIBARREA Galtzerdiak

GOROLDIOA

Gordoa

Paga extra

HOTZA

Erosketak Afariak

Familia

Kolesterola

BERTSOAK

Olentzero

Espuela **ASMO ONAK**

Izarrak

ERREGEAK

Mari Domingi

kalejira

Patinajea **MORKAIKORA**

Gaztainak

Zoriontasuna

Sutondoa **IKATZA**

a la ken...

Txanpaina

gehiagikeria

zerua

PROMESAK

Intxaur-saltsa

HAMABIAK

Gorria **Negarra**

Angulak **TURROIA**

Osasuna

MUSIKA ardoa

Karta-jokoa **NEGUA**

txipli-txapla pun **lagun ezkutua**

Kandelak

Urte zaharra

Garpasa

Haurrak

Kontsumoa

ametsak

errespundelapikulatunba

MERKATU PLAZA

Uste duzuna baino gehiago!



Amaia FRUTADENDA



MARI HARATEGIA



Arantxa eta Marian
FRUTADENDA



Zabala
URDAITEGIA eta ARDANDEGIA



TXILARRE BARAZKIAK
Elikagai ekologikoak



M. Angeles
FRUTADENDA



Zabala FRUTADENDA



PAGOA LORADENDA

Gabon zoriontsuak denoi!



**Etorri eta ezagutu
IKASTOLA**

E.GUBERNATION

elgoibar ikastola

☎ 943 744441
elgoibar@ikastola.net
www.elgoibarikastola.net

Zorionak eta Urte Berri On
Felicidades y Próspero Año Nuevo
Frohe Weihnachten und ein Gutes Neues Jahr
Merry Christmas and Happy New Year
Buon Natale e Felice Anno Nuovo
Joyeux Noël et Bonne Année

新年快乐

Zorionak
2009





*Gabon zoriontsua
eta
urte berri on!*



**T O
L E
T X E**

PEDRO MUGURUZA 8, BEHEA
ELGOIBAR • TEL.: 943 741 012

Taberna



Zorionak eta urte berri on!



MAPFRE

San Frantzisko, 40 - Tel: 943 74 05 82 / 943 74 14 04 - Faxa: 943 74 17 07 - E-posta: patxizo@mapfre.com

NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

ZELETA BARAZKIAK

– 5.000 m² babestutako
barazkigintza produkzioarako
– 200 m² manipulazio
eta ontziratze
biltegiatarako



Gabon zoriontsuak!



*Ekoizpen prozesuan
energia berriztagarriak
erabiltzen ditugu*

ZELETA

- Landareen PRODUKZIOA
- Laborantza KONTROLA
- Eskuz eginiko AUKERAKETA
- BANAKETA
- Bertako produktuetan erantzunik GERTUKOENA

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • www.zeletabaserrria.com



Kaino Olertzaro:

-MASAJEAK-
Erlaxatzea + Aromaterapia + Zurrustak
Kiromasajea
Kirol masajea

GORPUTZ TRATAMENDUAK
Body depur plana
Txokolaterapia
Golden spa erritualak
Spa horoskopoko tratamenduak

**OPARITU OSASUNA, LASAITASUNA
eta ONGIZATEA!**

ATSEDEN KIROMASAJEA

Upaiz Zaharra, 4 behea
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)

EDURNE GABILONDO (Tel.: 655 712 720)
ARGIÑE GABILONDO (Tel.: 656 711 878)

**EGUBERRI ZORIONTSUAK
ETA URTE BERRI ONI**



Aldaz hortz klinikak
jai zoriontsuak eta

Urteberri on

2009

opa dizue

Ola kalea 10

LASARTE-ORIA

San Bartolome kalea 22

ELGOIBAR

Tel.: 943 366 377



Krisialdiaren globalizazioa

Urte askotan finantza-merkatuetan interes-tasak oso baxuak izan dira eta horrek diru erraza lortzeko bidea eman du, eta goi mailako karguentzat soldata izugarriak. Dirutza irabazteko aukera ikusita, AEBetako bankuak arrisku handiko mai-leguak ematen hasi ziren. Horrela, higiezinaren booma aprobeztatuz, diru sarrera finkorik ez zuten pertsonen hipoteka-kredituak eskaini zizkieten, askotan erositako etxearen balioa baino handiagoak.

Hainbeste diru eman eta gero, bankuak dirurik gabe gertatzen hasi ziren. Kanpoko bankuei eskatzea bururatu zitzaizen (zertarako da, ba, globalizazioa?). Horrela, zure betiko banku horretan zenuen aurrezkiaren zati bat Amerikar bankuren batera joan da.

Diru-goseak ez du, baina, azkenik. Hipoteken bidez bermatutako obligazioak atera zituzten eta hor sartu gintuzten berri ere, Bezero zareneko kutxa edo bankuen aholkua jarraituz, gure aurrezkiak obligazio horiek erosi dituzten inbertsio-fondoetan sartu genituen, eta zalantzarik ez izateko, gainera, fondo horiek errentagarritasun itzela zutela, ez dakit nolako aldizkari espezializaturen halamoduzko ranking-etan oinarrituz.

2007ko hasieran etxebizitzaren prezioek behea jo zuten eta amerikar asko konturatu ziren balio zuena baino gehiago ordaintzen ari zirela euren etxeengatik. Bankuak izutu egin ziren eta elkarrekiko fidagarritasuna galdu; ondorioz, diru faltaz, gu-

txiako eta garestiago mailatzen zuten. Horrek guztiak kontsumoaren jaitziera, industria-ekoizpenaren ahultzea eta langabezia ekarri ditu.

Sistemak hondoa jo ez dezan, banku zentralak eta estatuak diru publikoa sartzen dihardute etengabe. Irabazi dutenean etekina eurentzat izan da eta axolagabekeriaren ondorio diren galerak denok ordaindu behar ditugu, hau pagotxa!

Carlos Ansola



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitze gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Irabazi dutenean etekina eurentzat izan da eta axolagabekeriaren ondorio diren galerak denok ordaindu behar ditugu”

URTARRILEAN BUELTATUKO GARA GABONETAKO ERRETRATUEKIN



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net



ELGOIBAR

IRAGANA ETA ORAINA

JULIAN ZABALETA 'YULEN'
ETA PELLO ARRIETA



Pello Arrieta elgoibartarrak *Elgoibar: iragana eta oraina* liburua idatzi du herriko ondareari eusteko asmoz. Ilustrazioak beste elgoibartar batek egin ditu: Julian Zabaleta 'Yulen'-ek. Aurkezpena abenduaren 23an egingo dute, 20:00etan Musika Eskolako auditorioan. Baina aurrez, BARRENein berbetan aritu dira euren lanaren nondik norakoak azaltzeko.

Edurne Burgaña

Elgoibarko arkitektura zibila eta arkitektura erlijiosoa biltzen ditu liburuak. Batetik, arkitektura zibileko eraikinen artean honakoak daude: Udaletxea, San Lazaro ospitalea, azoka-plaza, Madalako eta Melitongo hiltegiak, frontoia, zubiak, ikastetxeak eta iturriak, armariak eta arkuak, plazak, palazio, dorretxeak eta etxeak, baserriak, fabrikak eta errotak. Bestetik, eraikin erlijiosoen atalean, parrokiak, komentuak eta ermitak daude. Pello Arrietak idatzitako testuak ilustratzeko Yulenek egindako 200 bat marrazki biltzen ditu liburuak. Pello Arrieta hogeita hamar urte gazteago da Yulen baino, baina txikia zenetik ezagutzen dute elkar.

Liburuaren sorrera

Elgoibar: iragana eta oraina liburua 2007ko San Anton Egunean sortu zen. Egun horretan, IMHko museora joan zen Pello makinaren erakusketa berezi bat zegoelako. Orduan beste liburu bat egiten ari zen, jo eta ke, eta tarte bat hartu zuen erakusketa ikustera joateko. Museoan Yulen eta Carmelo Urdangarinek elkartu zen. Goiz horre-

tarako, Carmelok Yulenen marrazkiak ikusi zituen, eta liburu atera-zeko proposatu zion, baina horretarako idatziko zuen norbait behar zuten. Museoan sartu eta makina baten parean zeudela, aurrez aurre Pello ikusi zuten, eta, halaxe, liburuaren proiektua aurkeztu, eta baiezkoa eman zien Arrietak. 150 marrazki bidali zizkion Yulenek Pellori, eta aztertu ondoren, beste 50 egiteko eskatu zizkion Arrietak. Horrela, osatzen joan ziren berrehun egiteko arte.

Liburuan Elgoibarko eraikuntzak ikusiko ditugu: betiere irizpide historiko-artistikoa hartu dute ondarea jasotzeko. Historia izan duten eraikuntzak edo elementuren bati eutsi dieten eraikuntzak. Pellok berak urteak daramatza artxiboko lanak egiten Elgoibarko historia biltzeko. "Baloratzen ez dena ez da maitatzen. Eta gure herrian askok ez dituzte baloratzen hainbat bazter eta toki. Baloratzen dena maitatu eta maitatzen dena gorde egiten da", Arrietaren iritziz.

Elgoibar ezagutzeko beste era bat da: akaso urte batzuk barru ez delako liburuan agertzen den eraikinen bat egongo, eta egonez gero, hondatuta edo beste itxura batekin egon daitekeelako.

“Baloratzen dena maitatu eta maitatzen dena gorde egiten da”

PELLO ARRIETA

PELLO ARRIETA

Pello Arrieta maisua da Institutuan, eta arratsaldeetan, asteburuetan eta oporretan idazten ditu liburuak. Elgoibarko ondarea jasotzen egindako lehen liburua 1996koa izan zen: Elgoibarko ondare historiko artistikoa: arkitektura zibila. Yulenek 22 marrazki egin zituen lan hartarako. Aurretik testugintzan ere aritu zen Arrieta: geografia, historia eta arteko liburuak egiten aritu zen. Euskarazko materialik ez zegoenez, horretan jardun zuen. Bigarren liburua 2007ko Euskal Jaietarako ateratakoa izan zen, eta hirugarrena kaleratuko du orain. Jarraitzeko asmoa dauka ondarea jasotzen, baina ez litzateke izango eraikuntza eta etxeen ingurukoa, horien barruan dauden elementu artistikoen ingurukoa baino. “Asko daude gure ermitetan, parrokietan, etxeetan, artxiboetan...”, esan du. Baina beste tratamendu bat emateko asmoa dauka: DVD edo CD formatuan jasoko du.

Elgoibarko dokumentu idatziak ere jaso nahi ditu. Eta, bien bitartean, 2010en Musika Bandak 125 urte egingo dituzenez, haren historia bilduko duen liburua idatziko du. 2010ean jubilatzeko asmotan ere bada, eta asti gehiago edukiko du orduan, ondarea biltzen jarraitzeko. Yulen desiratzen dago egun hori iristeko, elkarrekin lan gehiago egin ahal izateko.


YULEN

San Bartolome kalean jaio zen Yulen, 1921eko otsailaren 14an. Lehen hezkuntza herri-eskolan egin eta lanbide-heziketa ikasi zuen ikastetxe berean hamabost urte bete arte. 1951 urtean irailetik apirilera bitartean marrazketaren gaineko ikastaro bat eman zuen Bernardo Ezenarro maisuarekin. Urte berean, Eibarko Hortensia San Martin Ortiz de Zararekin ezkondu zen, eta harrezkero Eibarren bizi da. Sei urte daramatza alargunduta, eta orain bakarrik bizi da, baina andrearen marrazkia dauka etxean jarrita eta haren begiradapean egiten ditu marrazkiak.

Eibarren bizi arren, domeketan tren edo autobusa hartu eta 19:30ean agertzen da herrian, ordurako zain edukitzen ditu lagunak. Lagunen artean nagusiena da Yulen, besteak hamabost urte gazteagoak dira-eta. Horregatik jendeak pentsatzen du euren edadekoa dela Yulen, baina 87 urte ditu. Umore oneko gizona da, bere adinean horren ondo zelan dagoen galdetuta, hona bere erantzuna: “Noizean behin, inor ez dagoenean begira, erlojuja gelditzen dut”.

Kamara gerrian lotuta, herriz herri ibiltzen da Yulen, marrazki izango direnei argazkiak ateratzen. Carmelo Urdangarinek ateratako liburuetarako ere marrazkiak egiten ditu: lanbide tradizionalen buruzko liburuak kaleratzen ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta hamabigarrena egiten ari dira Yulen eta Carmelo. Yulenek berak beti egin duen lana izan da, galtzen ari direnak jaso, oroimen historikoari eusteko: “Gauza politagoa delako lehengo zaharra”.

Yulenek berak ere ez daki zenbat debora eman duen marrazkiak egiten: “Egin eta egin aritzen naiz, 3.000 dauzkat eginda. Edukitzearren egiten ditut marrazkiak”. Arkatzarekin egiten ditu marrazkiak, eta gero lumarekin tinta ematen die. Yulenezako ez dauka sekreturik marrazketak: “Lapitzarekin ondo egin behar da, eta konforme geratzen naizenean lumarekin pasatu. Segituan hasten naiz, badakidalako ondo egingo dudala. Asko egin ditudalako da”.





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Ez dezagun bestaldera begira!

Etxeratek Euskal gizarteari eta baita eragile sozialei proposamen bat egiten die: bildu ditzagun indarrak, elkartzen gaituen puntuen inguruan. Era berean apustu egiten du hiru aldarrikapen hauen inguruan bildu gaitezen:

- Gaixotasun Larriak dituzten Euskal preso politikoak berehala askatu ditzatela
- Biziarateko zigorra ezartzeko neurriak bertan behera utzi ditzatela, kondena bete duten presoak kaleratuz eta kalean dauden preso ohiak bakean utziz.
- Euskal presoak, Euskal Herriratuak izan daitezela, sakabanaketa eta bakartze politikarekin amaituz.

Hiru aldarrikapen horiek Euskal gizarteko gehiengoaren oniritzia du. Beraz ez du balio bestaldera begiratzeak egunero eskubide horiek urratzen direnean, eta indefentzio egoera horiek ematen diren bitartean.

Etixerat elkarteak ez dago bestaldera begiratzeko prest, eta gizartea animatu nahi du herri honen nahia errespetatzen.

Eskubide horien alde lan egiteko, Etxeratek manifestu bat kaleratu du honako lemapean: "Heriotz zigorrak ez! Biziarateko zigorrak ez! Eskubide guztien jabe, euskal presoak Euskal Herrira!". Manifestua www.etxerat.info aurkitu daiteke, eta bertan atxekimenduak eman daitezke.

Manifestu horren helburua, herritarren eta eragileen atxekimenduak lortzea da, ez direlako presoek eskubideak bakarrik urratzen, baizik eta milaka kilometro egite-

ra behartuta dauden presoek senitarteko eta lagunaren eskubideak ere urratzen direlako, eta horrek ondorio ekonomiko eta fisikoko larriak eragiten dituelako.

Bukatzeke, deia egiten diogu euskal gizarteari urtarilaren 3an Bilbon egingo den nazio manifestazioan parte hartzeko.

Euskal preso politikoaren eskubideen alde, urtarilaren 3an denok Bilbora!

Etixerat

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

OHARRA:

Gabonak direla-eta, BARREN astekariaren hurrengo alea urtarilaren 9an jasoko duzue. Aldizkariko lan-taldeak jaiok ondo pasatzeko opa dizue.

URTE BERRI ON!

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com


Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Asier Orbea, Oier Narbaiza, Edurne Burgaña PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZAILA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Uhanue KOLABORATZAILAK Oihana Tarragual, Ibai Portu, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Anjel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegi, Sugar Etxaniz, Arkaitz Irureta, Zuhaiz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.750 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Ainara Sedano



Noemi Otegi

E p a ,
Noe, datozen
gabon egun
hauetan ohitura
den legez bakea opa
dizut eta gabon zoriontsu

batzuk pasa ditzazula familia arte-

an. Bakea dela eta ez dela, aipatzera nator egun hauetan baita bete direla giza eskubideak deklaratu zirenetik 60 urte, 60 urte luze. 60 urte eskubideak dokumentu batean banaka-banaka idazten joateko: heriotz zigorra debekatuz, gizon-emakumeen arteko berdintasuna ezarritik, haurren eskubideak argitaratuz, eta abar luze bat. Baina 60 urte horien ondoren, dokumentu hori ederki potolotu eta gero, otutzen zait guk, gizakiok, dokumentu horrekin batera aurrera egin ote dugun ala ez. Heriotz zigorra oraindik badaukagu gure artean, Euskal Herrian behintzat bai, horrela edo hala pentsatzeagatik aplikatua. Gizon eta emakumeen arteko berdintasunean lan asko egin da eta are gehiago daukagu oraindik egiteke. Puntu honetan ere oraindik heriotz zigorra aplikatzen diete gizon askok beren emazteei. Haurren eskubideen inguruan... zenbaterik nahiko lukete gabon zoriontsu batzuk pasa familiaren su goxoaren inguruan, nonbait gosetan, jipoipean edo sexu abusupean izan ordez. Eta egun aditzen ditudan berri hauek pentsa arazi egiten didate: hainbeste ilusioekin eta etorkizun hobe bati begira definitzen joan garen eskubide horiek non geratu ote diren.

“Has gaitzen batzuk besteak errespetatzen”

Gabon hauek... eta atzetik datozen gabon eta gure bizitzako egun guztiak pasa ditzagula bakean. Baina argi! Izan dadila norberak aukeratzen duen bakean eta ez beste batek gugatik aukeratzen duenean. Has gaitzen hasieratik. Has gaitzen batzuk besteak errespetatzen. Eta apaizek dioten bezala.... bakea zurekin.

Hala bedi, Ainara! Zure atala irakurri bezain azkar, konturatu naiz nire erantzuna ezkorregia izan zitekeela, beraz lehenik barkamenak irakurleari, baina ez dira itxaropen handiko momentuak.


Ez zait batere gustatzen tristuraz edo ezkortasunez idaztea, baina batzutan komeni argia izatea eta zuzentasunez jokatzea! Gure Euskadi ez da-eta arrosa kolorezko herria. Malko gehiegi isuri dira, odol gehiegi alperrik galdu da, eta ez dirudi egoera berehalakoan aldatuko denik. Nahikoa da bat, bakarra bada ere, hurkoa erailtzeko eskubidearekin sentitzen dena, beste giza eskubide guztiak pikutara bidaltzeko. Bizitza eskubiderik ez dagoenean, ez da ezer geratzen.

“Odol gehiegi alperrik galdu da”

Bake absoluturik ez dago, ezta bete-beteko zorientasunik, baina poliki-poliki normaltasunera goazela pentsatu nahiko nuke, errealitateak begiak zabaltzen dizkidan arte. Zenbat emakume hil dira aurten, indarkeria sexista dela medio? Zenbat erailketa egon dira Euskadin terrorismoak eraginda? Zenbat galdera ilun, erantzun ilunagoekin. Baina ez dut gure 2008ko azkeneko *Zozoak Beleari* horrela bukatu nahi, eta ez eguberriak datozelako eta zoriona opatzeko garaia delako, baizik eta aurrera jarraitu behar dugulako! Ezin dugulako etsi, egunero jaiki behar dugulako, gauzak hobe izango direlakoan, eta hobe izateko prestasunarekin, denok jarri beharko baitugu zerbait gure aldetik, zorioneko bake horretara iristeko, eta iristen ez bagara ere, bidean ahalik eta gertuen gelditzeko. Hala bedi, Ainara! Bakea zurekin.



Elgoibarko Udala



Sahararako janari bilketa kanpaina egingo dute abenduaren 22tik 26ra bitartean

Eroski supermerkatuetan laga daitezke produktuak

Sahararen aldeko Euskal Herriko elkarteak janari bilketa kanpaina jarri du martxan. Abenduaren 22tik 26ra bitartean bilduko dituzte produktuak, Eroskiko bi supermerkatuetan. Arroza, azukrea, lekariak, kontserbak eta konpresak jasoko dituzte elkarteko kideek.

Ion Gurrutxaga, Saharan

Ion Gurrutxaga elgoibartarra Saharan izan da. Debako Joseba Juaristiren bitartez egin du bidaia, eta bederatzi egun egin dituzte bertan. Joseba Juaristik hamalau urte daramatza Sahara-ko herrialdeari laguntzen, eta udan hango ume bat hartzen dute etxean. Urtean bi aldiz hango umea bisitatzeko aukera izaten dute, eta bidaia hori aprobetxatu dute Euskal Herri-ko Saharara laguntza eramateko. Ion Gurrutxagak ere laguntza eman nahi izan die hango bizilagunei, eta, bide batez, mundu arabiarra ezagutzeko aukera izan du. Esperientzia polita, aberasgarria eta errepikatzeko modukoa izan



dela kontatu digu. Janaria eta jantziak eramateaz gain, Saharan dituzten beharrik handienak atzeman dituzte, eta horren arabera banatu dute hemendik eramandako laguntza. Orain, desertu erdian egoera kaskarrean zegoen psikiatriko bati eta 700 ikasle biltzen dituen eskola bati lagundu diote. Algeriako hiri batean koltxoiak, mantak eta beste hainbat produktu erosi eta bertara eraman zituzten.

Saharako umeak etxean

Bestalde, udako hilabeteetan Saharako umeak etxean hartzeko aukera dagoela gogorarazi nahi izan dute Josebak eta Ionek. Horretarako tramitazioa otsail inguruan egin behar izaten da.

Interesatuak Sahararen aldeko Euskal Herriko Delegazioarekin jarri daitezke harremanetan ondorengo telefono zenbakian: 945 252 069.

Erreminta-makinaren museoaren hamargarren urteurrena ospatu dute



Ingeniaritza Eskolako diplomak banatu zituzten.

Atzo egin zuten IMHn erreminta-makinaren museoaren hamargarren urteurreneko ospakizuna. Bertan, museoaren sorreran eta garapenean lagundu duten pertsoneri eta erakundeei esker ona adierazi zieten. Udaleko eta IMHko ordezkariekin batera, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria izan zen ekitaldian.

Bestalde, Ingeniaritza Eskolako diplomak banatu zituzten abenduaren 11n. Elgoibarko IMH Ingeniaritza Eskolak txandakatze sistema erabiltzen du ingeniariak prestatzeko; hau da, ikasi eta lan batera egiten dute. Beraz, formazioa amaitzen dutenerako ikasleek hiru urteko lan esperientzia bereganatuta izaten dute. Hamahiru urte daramatza IMHko ingeniariak formatzen.

Ekimena **Jaiotza lehiaketa**



Parrokiako katekistek antolatzen duten Jaiotza Lehiaketan 27 lan aurkeztu zituzten. Itxura eta material guztietako lanak egin zituzten partehartzaileek. Guztira, 127 umek hartu zuten parte, irabazleak Aitor García, Aiara García, Borja Azpilikueta eta Alex Azpilikueta izan ziren (argazkian). Jaiotza guztiak Errosario kaleko lokal batean daude ikusgai.

Bestalde, Parrokiako Jaiotza biziduna gaur, abenduak 19, inauguratuko dute Parrokiako kaperan, iluntzeko 20:00etan, eta urtarrilaren 18ra arte bisitatu ahal izango da.

Irudia **2009ko egutegia**

Udalak eta Ongarri argazkilaritza taldeak antolatutako argazki lehiaketaren emaitza da 2009ko egutegia. Bederatzi elgoibartarrek ateratako hamabi argazkirekin osatutako dute lana: Carlos Esteban, Aitor Rementeria, Jabi Leon, Angel Lopez, Arrate Iriondo, Jesus Bilbao, Angeles Ortuoste, Txomin Castrillejo eta Eider Iriondo. 7.500 ale banatuko dituzte guztira. Egutegi txikiak etxeetan banatuko dituzte, eta handiak Herritarren Arretarako Bulegoan edo Kultur Etxean eskuratu daitezke.



Gabon Zahar Feria hilaren 27an izango da

Urteko azken zapatuan egingo da aurten ere Gabon Zahar Feria; aurten abenduaren 27an. Goizeko 8:30etik aurrera, barazki eta fruituen erakusketa eta salmenta izango da Plaza Handian eta elizako arkupeetan, gazta eta ezta dastatzeko aukera izango da. Leku Eder eta Plaza Txiki inguruan baserriko produktuak eta lanabesak jarriko dituzte, eta Nafarroa Plazan animaliak egongo dira. Elgoibar Ikastolak burduntzian erretako arkume pintxoak eskainiko ditu Eusko Labelaren laguntzaz, urteko gaztarik onenaren lehiaketa egingo da, eta giroa alaitzen Baltzola Anaia trikitilariak arituko dira. Arratsaldean, Plazara Dantzara erromeria izango da, Plaza Handian.

Santo Tomas eguna Altzolan

Zubibai elkarteak antolatuta, Santo Tomas eguna ospatuko dute domekan, abenduak 21, Altzolan. Inazio Bereziartua musika eskolako trikitilariak alaituko dute giroa, eta bertara hurbiltzen diren guztientzat salda eta txorizoa egongo da. Ekitaldia eguerdiko 12:00etan izango da Altzolako frontoian.

Gabonak San Lazaro egoitzan

San Lazaro egoitzako kideek ere, modu berezian ospatuko dituzte Gabonak, eta abenduaren 23tik urtarrilaren 6ra bitartean ekitaldi mordoak izango dira bertan. Besteak beste, bingo berezia, postalak egiteko tailerrak, musika emaldiak eta karta txapelketak izango dituzte.

Korrikako materiala salgai

Korrikaren datorren edizioa martxoan izango da, eta hori dela-eta, hilaren 19an, AEK-k Korrikari laguntzeko atera den arropa jarriko du salgai Azoka Plaza inguruan, arratsaldeko 18:30etik 20:30era. Korrika Laguntzaile txartela egiteko aukera ere izango da.

Gure berbak

Gabonak esaeretan

Gabon aurreko egun hónetan, Gabonen inguruko esaera batzuk ekarriko doguz. Jan-edanaren inguruko esaerak dira asko; bai eta neguko eguraldixa hizpide daukenak.

Gatozen, hórretakoz batzuk jasoz urte zaharrari agur esatera.

- *Natibitate ase ta bete; San Estebantxo, len bezelantxo.* (Natibitate eguna Gabon eguna adierazteko erabiltzen da Elgoibarren. San Esteban eguna, berriz, biharamona da, abenduaren 26a).

- *Gabon gabian oitutzen dogu, guztiok apari ona: bixigu, legatz, bakallu-saltsa, bakoitzak berak a(ah)l duna. Gero txurrun-plinplau, ardaul ta patarra, katuak hartuta (mozkortuta), zabu-zabuka.* (Gotzon Garate zanak zioen bere etxean kantatzen zutela Gabon egunean abesti hau).

- *Urte berri eguna, ez dala egun txarra, kortara jausi dala gure sapai zarra; daukanak ez daukanari, nik ez daukat eta neri, kantaretan bat, kantaretan bi, ekazu agiñaldo Jangoiko-agatik; agiñaldo, agiñaldo, bota gaztañak ta ixilduko.* (Gotzon Garate zanak zioen bere etxean kantatzen zutela Gabonetan abesti hau).

- *Gabon eguna, egun illuna.*
- *Urte berri, asmo berri.*
- *Urtearen lehenengo hamabi egunak nolako, hamabi illebeteak halako.*

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1971

Aste honetako erretratu zaharra Elgoibar Ikastolako artxibotik atera dugu. 1971. urteko Olentzeroren kalejirakoa da. Ikastolan esandakoaren arabera, garai hartan txandaka antolatzen zuten Olentzeroren kalejira ikastetxeen artean. Ondoren, Elgoibarko Izarrak hartu zuen abenduaren 24an Olentzeroren kalejira antolatzeko ardura, eta gaur egun ere kultur elkarteko Atxutxiamaika aisialdi taldeak prestatzen du. Umeak ilusioz beterik irteten dira kalera egun horretan, Olentzero eta Mari Domingiri eskutitzak ematera. Batzuk opariak jasoko dituzte aurten ere, baina gaiztoak izan direnentzako ikatza ere ekarriko du Olentzerok.



PREZISIO MUNDU BAT



MYL S.A.

Zorionak eta Urte Berri On!

Erramone poligonoa, 1-3-5 - 20850 MENDARO

Tel. 943 75 70 03 · Faxa: 943 757 130

E-posta: myl@myl.es · http:www.myl.es



EUSKO ALKARTASUNAK

Urte Zaharra galtzear
Berria agurtu behar,
batzutan irriz etorri da ta,
zenbaitetan negar,
ekiogun ba denok bat,
batuta milaka indar,
denok batera aurrera egin
dezagun Elgoibar

Zorionak eta Urte berri on!



Osasun eta Edergintza Zentzu Berria

Parte hartu ezazu

edo konpromisuzik gabe deitu ezazu

Osasuna eta Edertasuna Oparitu

Opari-Bonoak jai hauetarako

Har ezazu parte

abenduaren 23ko inaugurazioan!

Saioak Doan

aupa
zen

Laster inaugurazioa

Jausoro kalea,1 • Elgoibar • Telefonoa: 943 74 34 40

Zerbitzuak: Photoia, Laserra, Radiofrekuentzia, Oxigenoa, Akunpuntura, Ultrasoniak,...

Ondo pasa gabonak!!

estetikaalire

Upoko zaharra, 1. behea / Tel.: 943 531 636 / Elgoibar

Oparitu edertasuna eta ongizatea gabon hauetan!

Aurpegi eta gorputz tratamenduak
 Ongizate tratamenduak
 Masajeak
 Fotodepilazioa
 Mikropigmentazioa
 Manikura
 Solariuma

ORRAZKERA TAILERRA
ABENDUAK 31, EGUAZTENA

- Goizeko 10:30etik 13:30era
- 13 eta 18 urte bitarteko edozein gaztek eman dezake izena.
- Tailerra GAZTELEKUAN
- Izen emate epea ABENDUAREN 21ean amaituko da.
- Gazte bakoitzak tailerragatik 5 euro ordaindu beharko du.

Irakasleak bakoitzaren ileari buruzko aholkuak emango ditu, beraz, gazteek beraien zalantzak argi ditzakete eta nahi dituzten galderak ekarri ditzakete. Ondoren, orrazkera erraz batzuk azalduko ditu gazteek ikas dezaten eta gabon zaharretan dotore egon daitezen.

Egiteko Unitate
 GERS
 G

disart
 diseinu estudioa

Gure sukalde italiarrak aurkezten dizkizuegu.

Pedro Muguruza Etorbidea, 5
 tel/fax: 943743245

2.496 € (salneurri hau sukalde moduotarako da; etetresna elektrikoak eta apargariak kanpo daude. B.E.Z. ez dago sartuta).

San Anton jaietako

KOLORETAN MAHAI-JOKO TXAPELKETA

Elgoibarko partxis-tribiala



Urtarrilak 18, domeka
Goizeko 11:00etan
Kultur Etxeko sotoan

**Erosi mahai-jokoa
eta hasi entrenatzen!!!**

SARIAK :

1. saria: Txapela eta 500 €
2. saria: 300 €
3. saria: 150 €

- 18 urtetik gorakoentzat
- Bakarka edo bikoteka har daiteke parte

Izena emateko: Ubitarte 4, behea / 943 74 16 26 / elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com
(azken eguna: urtarrilak 12)

Antolatzailea:

 **ELGOIBARKO IZARRA**
KULTUR ELKARTEA

Babeslea:



Elgoibarko Udala
Kultura Saila



ESTUDIOS ARRILLAGA



**Proiektu eta erreformak
Gremioen zuzendaritza
Altzarigintza osoa**

Arragueta 12. EIBAR
Tel. 943 20 06 98

Errosario 15. ELGOIBAR
Tel. 943 74 40 19



EIZAGUIRRE

OKINDEGIA

LANTEGI PROPIOA

Espezialistak artisau ogietan,
txapata ogietan, opiletan...

**Gabon gauerako eta
Eguberrirako
ogi bereziak enkarguz**



San Frantzisko kalea, 22 behea
Tel. 943 74 04 88



ARAMBURU



BITXIDENDA

Oparien erosketak egiterakoan,
kontutan izan 20 €-ko gastuagatik
txartel bat emango dizugula,
errega bezperan
egingo den zozketarako!!!

**Aurten bitxi-dendan gastatzeko
500 €-ko 2 bale zozketatuko ditugu!!**

**AURTEN
ZU IZAN ZAITEZKE!!!**

San Frantzisko, 26
Tel./faxa: 943 74 25 35
Elgolbar





B

BARREN



urteari errepassoa





1936ko gerran hildako gizon baten gorpuzkia aurkitu zuen Elgoibar 1936 taldeak Madariagan. Memoria historikoa berreskuratzeko ahaleaginean Elgoibar 1936 taldeak **36ko gerran hildako miliziano baten gorpuzkia topatu zuen** 2007ko abenduan Madariagan eta Aranzadi elkar-terearen laguntzarekin berreskuratu zuten. Madariagako Juan Aranbarri Parapan baserriko Felix Etxeberriari emandako informazioari esker topatu zituzten hezurak. Faxistak 1936ko irailean Madariagara heltzean, miliziano bat hil eta gorpua bertan laga zuten. Aranbarriren aitak lurperatu zuen. Albiste honi lotuta, herritarrei Gerrate Zibilean lurperatutako gorpuak bilatzen laguntzeko konpromisoa hartu zuen Udalak azaroan. Elgoibar 1936 taldeko kideek txalotu egin zuten Udalak onartutako akordioa, eta euren laguntza eskaintzeko prest azaldu ziren.



Iñaki Lazarobaster elgoibartarra Gipuzkoako EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna) sindikatuko presidente izendatu zuten. Altxolaberaseta baserrikoak gainbehera datorren sektoreari bizi berria ematen saiatu beharko du.



Juan Mugerza krosa **Leonard Komon** keniarrek irabazi zuen. Masai leinukoa da eta 5.000 metrotan munduko hamabi onenen artean dago. Bera izan zen txapeliduna eta kroseko arima. Bigarren eta hirugarren Kipyego eta Buthbert Nyassango helmugaratu ziren, Zimbawekoak biak. Emakumezkoen artean beste keniar batek irabazi zuen: Jepletinegk.

Arriola Aroztegia

Garagarza kalea, 44
Telf.: 629 258 172
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

URKIDI
AHOLKULARITZA

Antonio Urkidi
Josefina Fernandez

Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xizition, 2 - 3.sotoa - 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA



“Arrazoi pertsonalak” argudiatuz, **Nekane Ortuoste** Eusko Alkartasunako zinegotziak Elgoibarko Hez-kuntza Delegazioko presidente kargua laga zuen.



Eneko Loiolak San Anton Torneoko finala jokatu zuen, baina galdu egin zuen. Sanmigeldarra 2006an ere bigarren postuan gelditu zen txapelketa horretan.



Baltasar elkarteak berrogeita hamar urte bete zituen eta urteko historia gogoratzeko liburua kaleratu zuen. 1958ko urtarrilaren 17an sortu zen, eta bere jarduera pilotarekin erabat lotuta egon da. Gazte Alaiak eta Pikupe koadrilek Baltasar Pelotazale Elkartearekin sortu zuten. 50 bazkide sortzaile izan ziren guztira.



LEIGAR ELEKTRAGAILUAK
MANU LEIZABE LOYOLA



TB · BIDEOA · HI-FI · DVD
Salmenta eta zerbitzu teknikoa
Errosario, 8 · Tel. 943 74 00 54



Akei baserriko *Mimi* astoa Gipuzkoako ederrena izendatu zuten. Txomin Arriolaren astoek bost aldiz segidan irabazi dute Lazkaoko Astotxo Eguneko lehiaketa. Lehenengo hiru urteetan *Satur* astoa izan zen, eta azken bi urteetan *Mimi*.



Bost urte "Egunkariarik gabe". Otsailaren 20an bost urte bete ziren Juan del Olmo epaileak *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuenetik. Elgoibarren eta Euskal Herri osoan ekimen ugari egin ziren *Egunkariaren* alde.



Ezker Abertzaleak deituta greba orokorra egin zen otsailaren 14an, EAE-ANV eta EHAKren ilegalizazioa salatzeko. 11:00etatik aurrera erdiguneko denda eta taberna guztiak itxi zituzten. Eguerdian eta iluntzean kontzentrazioak eta manifestazioak egin zituzten. Egun bat lehenago Guardia Zibilak ibili ziren Elgoibarren, eta greba iragartzen ari ziren herritarrak hormaren kontra jarri zituzten.

**ECANIZADOS
S. COOP
BUKATU.**

OLASO Poligono Industrial - Olesope kale, 6
68 atea - Telefonoa: 943 74 42 54 - Fax: 943 74 02 98
20870 ELGOIBAR
E-posta: bukatu@bukatu.es - Htp: www.bukatu.es

■ KABLEENTZAT KATEAK
■ IDENTIFIKAZIO SISTEMAK
■ KABLEENTZAT PLAKAK
■ TUBOAK ETA ERRAKOREAK

Murrplastik SL - Ubarburu 76 - Plabikioa 34, Poligono 27
20014 Donostia - Telefonoa 943 44 46 37 - Faxa 943 47 28 95

Jose Angel Zabala

MAHASTI

*Urdaitegi
eta
ardandegia*

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72

Gabiola Gestoria

- ⊙ Ibilgailuak
- ⊙ Garraioak
- ⊙ Gai orokorrak

Aseguruak

San Frantzisko, 22 - Tel-Faxa: 943 74 07 97 - Elgoibar



Olasoko **Kasalzer enpresan sutea izan zen**. Olaso industriaguneko Kasalzer enpresan sutea izan zen eta Herrizaingo Sailak jakinarazi zuen lapurrek nahita piztu zutela. Bi ordenagailu eta dirua ostu zituzten, rotaflexarekin kutxa ireki eta gero. Suhiltzaileek sua alboko garajeetara eta jatetxera hedatu arretik itzaltzea lortu zuten.



Baltasar Garzon epailearen aginduz, ezker abertzaleko hamalau kide atxilotu zituzten, eta tartean, **Joseba Zinkunegi** elgoibartarra. Batasunako Mahai Nazionala berregiteko ahaleginean aritzea, eta ondorioz, "erakunde terroristako" kide edo laguntzaile izatea leporatu zioten.



Aitor Garitagoitiak Elgoibarko ehiza xehe txapelketa irabazi zuen. La Union arrantza eta ehiza elkarrekin antolatutako ehiza xehe txapelketan hamazortzi lagunak hartu zuten parte eta Aitor Garitagoitiak irabazi zuen. Hiru faisai eta bi eper ehizatu zituen hamabi orduren bueltan.

Upaiz Zaharra, 6
Elgoibar



on@oninformatika.com
943 74 18 46

Salmenta Konponketa Zerbitzu Teknikoa Aholkularitza Web Diseinua Sareak ...

Sartu gure web orrian, edota etor zaitez gu ezagutzera!!

www.oninformatika.com



Alberto Agirreazaldegik Laponia zeharkatu zuen iraupen eskian zazpi egunetan. Rajalta Rajalle Hiito Errusiako mugan hasi eta Suediakoan bukatzen den iraupen eskiko proba egin zuen. Zazpi egunetan, 440 kilometroko ibilbidea egin zuen.



Udalak 276.400 euroko diru-laguntza eman zion Elgoibarko Izarrari 2008ko proiektuak eta egitasmoak finantzatzeko. Elgoibarko Izarra kultur elkarteak eta Udalak 2008ko hitzarmena sinatu zuten.



IMH-Sanloko neskek Euskadiko txapelketa irabazi zuten kadete mailan. Liga amaitzeko partida baten faltan, IMH-Sanloko nesken eskubaloi taldeak Euskadiko Txapelketa irabazi zuten. Iaz ere, garaipena lortu zuten elgoibartarrek.

Maria Urizar

- Ileapaindegia
- Solariuma

Errosario kalea, 9 - 1 ezk.
Tel.: 943 744 449
Elgoibar

OLASO

TABERNA-JATETXEA

Gosariak - Menuak...

Gabon zoriontsuak!

Olaso Industrialdea, 15 · Tel. 943 74 31 85 - 636 01 57 07

LARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Tel: 943 74 10 11

- 🚗 IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- 🏎️ ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
- 🏆 IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Gabon zoriontsuak!

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, Marimendi taldeko **Arrate Zubia** elkarrizketatu zuen BARRENEk. Mendia, euskara eta 40 urtetik gorako emakumeen aldarrikapenak bultzatzen ditu Marimendik. Uztailean Elbrusera irteera egin zuen taldeak, Europako mendirik altuenera, eta Arrate espedizioaren parte izan zen. Argazkian Arrate Zubia eta Izaskun Estibaritz ikusten ditugu.



Espainiako Hauteskunde Orokorrak izan ziren martxoaren 9an, eta Elgoibarren EAJ garaile izan bazen ere, PSE-EE alderdiak sekulako gorakada izan zuen. **Ovidio Campello** PSE-EEko zinegotziarekin berba egin genuen, eta garaipen gazi-gozoa izan zela aitortu zigun, izan ere, hauteskundeak baino pare bat egun lehenago, Isaias Carrasko Arrasateko zinegotzia hil zuen ETAK.



Elgoibarko **Udalak 60.000 euro** inbertitu zituen patinatzeko pista berria erosteko. Aurreko urtean karpa erosi zuten Debemen eta Udalaren artean, baina Gabonetan edukitako arrakasta ikusita, pista bera erostea erabaki zuen Udalak. 200m² ko azalera du pistak eta poliofelina izeneko materialez egindakoa da. Ohiko izotz pisten aldean mantenurako erraztasunak eskaintzen ditu, eta muntatzeko ere errazagoa da.



Judith
EDERGINTZA

Errotario Kalea, 19 - Tel.: 943 74 29 90 / 667742118

**Eskaintza hauek eta gehiago!
Gabonetan oparitu EDERTASUNA**



Luis Cerronek *Frtego, luego existo* bere lehen liburua kaleratu zuen. Filosofia ikasten ari zenean hasi zen liburua prestatzen. Sasoi hartan, hizkuntzaren erabilera ez sexista zuen aztergai. Bere ustez, aurrean duen pertsonari zor zaion errespetua agertzeko, lehenik eta behin, hizkuntza zaindu behar da. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko tirabirak aztertzen ditu 87 orrialdeko liburuan.



Teodosia Iriondok 101. urtebetetzea ospatu zuen txokolata eta txurroak gosalduz. San Lazaro egoitzako lagunez inguratuta jaso zuen Udalak emandako lore sorta eta egoitzako kide batek poema eskaini zion.



DEBAPE
inprimategia
komunikazio grafikoa

Gabon zoriontsuak!

Liburuxka, publizitate, papergintza komertzial, kartel, ezkontza gonbidapen, etab..-en diseinu eta inprimaketa. Inprimaketa digitala

SIGMA Industrialdea • Xiztion 2 - 2. solairua, 7. lokala
Tel.: 943 74 40 58 • Faxa: 943 74 41 78
20870 **ELGOIBAR** (Gipuzkoa)
debape@debape.com • www.debape.com

AHOLKULARITZA

BIKAIN
ASESORIA

- ① Zerga-aholkularitza
- ② Lan-aholkularitza
- ③ Kontabilitate aholkularitza

Tel./Faxa: 943 74 45 57
Tel. mugikorra: 970 497 236
e-posta: bikain@fonocom.es

Antonio Arrillaga, 4 behea
20780 **ELGOIBAR**



CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Karpo eta barneko estaldura
Zolak ezarpenak
Lakaduz egot, aluminio, PVC,
Pintura ornatua

San Roke, 7 behea
Pst. Glaso - Glasape kalea, 18 - 25 eta 26 maddalon
Tel. 943 749 570

GRUPO
TRINITY



Elgoibarko Izarra kultur elkarteak 45 urte bete zituen. Munduari buelta emateko intentzioarekin hasi ziren lanean 1963ko martxoan. Felix Etxeberria izan zen elkarteko sortzaileetako bat, eta elkarrizketa egin zion aldizkari honek.



Guggenheim museoko finantza arduraduna **Roberto Zearsolo** elgoibartarra zen, eta ustez, 500.000 euro inguru ostu zituen 1998tik 2005era bitartean. Apirilean kaleratu egin zuten. Hilaren 9an eskutitz bat bidali zion museoko zuzendariari egindako gutzia azaltzen, eta 251.00 euroko txeke bat. Hiru hilabetetan diru guztia itzuliko zuela agindu zuen.



ETAk bonba jarri zuen PSE-EEren egoitzan, Urasandin. Ez zen inor zauritu, baina, lokala kaltetua gelditu zen. Inguruko automobil batzuk eta leihoak ere hondatu egin ziren.



**ELGOIBARKO
HERRI ESKOLA**

*Eguberri
eta urte berri On!*



Zeresan handia eman zuten Altzolako Aurretxe etxea okupatu zuten etorkinek. Urtebetean han bizi izaten jardun zuten. Udaltzain eta ertzainek bertatik bidali zituzten maiatzaren 6an. **Desalojoa** izan zenean, poliziaek hamar bizilagun zenbatu zituzten eta ez zen istilurik izan. Aurretzeko hirugarren solairuan bizi ziren. Udalaren arabera, bizi izateko baldintza eskasean zegoen eraikina.



Bruno Guerrero altzolarra Cuatro telebista kateko *El gran quiz* lehiaketan izan zen. Lehiaketara iristeko hautaprobea gogorak gainditu behar izan zituen.



Ibizan bizi den elgoibartarra da **Fernando Bautista**. Maiatzean Iberiako penintsulari buelta eman zion kostaldetik motoz, lau egunetan eta bera bakarrik. Buelta emateaz gain, lagun eta toki jakin batzuk bisitatzeko aukera izan zuten. Etapa batean Elgoibarren egin zuten geldiunea. 4.400 kilometro egin zuten guztira.

software garapenak

Antonio Arrillaga, 1
Tel.: 943 748 105
Faxa: 943 748 228
info@softlan.biz
www.softlan.biz



ASESORIA GOAR

- Kontabilitatea
- Aholkularitza fiskala
- Asesoría laboral
- Abokatuak

San Bartolome, 1 behea
Tel: 943 742 674 / 943 740 234
Faxa: 943 742 129
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
asesoriagoar@euskalnet.net

HAIR'S *Ondo pasau gabonetan!*
ILEAPAINDEGIA

San Bartolome, 6 behea • Tel.: 943 53 12 79

Astearteetan jubilatuen eguna:
Orraztu 7 €
Garbitu, moztu eta orraztu 14 €





Komando Autonomo Antikapitalisten eta ETAre in-darkeriaren ondorioz hildako elgoibartarrei eta Elgoi-barren bertan hildakoei **omenaldia eskaini zien Udala**. Rosita Herrero (Angel Berazadiren familiaren ize-nean), Mari Luz Rojo (Patxi Zabaletaren alarguna), Estrella Murillo (Jose Expositoren alarguna) eta Mari Carmen Araolaza (Jaime Arreseren alarguna) izan ziren. Sebastian Aizpiri eta Anselmo Duranen senide-rik ez zen agertu.



Elgoibarko dantzariak lehen posturik lortu ez bazuten ere, txapela lortzetik oso gertu gelditu ziren Soinu Zahar eta Aurreku Txapelketan. Elgoibarko nesken presentzia handia izan zen. Gainera, **ligako txapelketa guztiak irabazi zituzten**, hamar guztira.



Mailaz igotzea lortu zuen Kenci Elgoibar areto futbol talde-ak eta berriro Espainiako B mailara itzultzea lortu zuen. Denboraldi bi egon zen talde elgoibartarra Euskal Ligan. 2007-2008 denboraldi bikaina egin zuen Kencik. Aurten-go denboraldian hogeitun urte egin ditu Elgoibarko arteo futbol federatuak.



Gozo-tokian 26 urtean jardun ondoren, **erretiroa hartu zuen Mari Jose Ezenarro**k. Zoriontsu izan zen dendan, ume eta ez hain umeei litxarriak saltzen. Herritar guztiei eskerrak eman zizkien bihotz-bihotzez. Elgoibartarrek ez dute Mari Jose ahaztuko.



Idama

Ileapaindegia - Estetika - Solariuma

*Gaztetzeko,
Bulgariako arrosaren tratamendua*

Oparitu edertasuna gabonetan!

Antonio Arrillaga, 6-8 behea
(sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26
20670 Elgoibar

**Ondo pasa
gabonetan!**



Behin-behineko askatasuna lortu zuen Juan Mari Mendizabalek, 18/98 auziagatik hamahiru urtera kondenatutako elgoibartarrak, osasun arazoak direla-eta. Bonxeko espetxetik 6.000 euroko fidantzapean irten zen. 2007ko azaroan atxilotu zuten elgoibartarra, ETA erakundeko kide zela eragotzita.

Juan Maria Uriarte Donostiako gotzaina San Bartolome parrokiako aldare berria kotsakratzera etorri zen Elgoibarrera, ekainaren 8an. Meza Benantzio Otaegi parrokoarekin eman zuen. Aldare berria Luis Ulazia arkitekto elgoibartarrak diseinatu zuen eta Izarraizko harrobitik atera zuten harria. Kotsakrazioarekin amaitutzat jo zituzten elizako zaharberritze lanak.



Miguel Larizek CD Elgoibarko presidente kargua lagatzeko asmoa erakutsi zuen, baina haren ordez inork ez zuen jarri nahi izan. Azkenean Jose Luis Insaustik hartu zuen presidente kargua. Insausti lehenago ere jardundakoa zen zeregin horretan. Kirol elkarteak ekainean egindako batzarrean, 115.928 euroko ondarea zenbatu zuen, Realak zor dizkion 12.000 euroak barne.



Gabon zoriontsuak!

ARBELOA
INMOBILIARIA

San Frantzisko, 34
arbeloainmobiliaria@euskalnet.net Tel.: 943 74 84 27

ALTZARIAK

OLATZ, s.m.

SUKALDE ETA BAINUGELAKO ALTZARIAK

Pedro M. Urruzuno kalea, 8 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel./Faxa: 943 74 38 44

Ondo nasa gabonak!

IRATXO
ROCK-KAFEA

San Frantzisko, 41 · Tel. 943 74 02 57



Elgoibarko pertsona nagusien grabazioak eta herriari buruzko kronika zaharrak batu, digitalizatu eta Interneten jarri zituen Elgoibarko Udalak. Batetik, zaharrei egindako elkarizketak jarri zituzten sarean (43 hizlari, 708 pasarte eta 114 audio). Bestetik, Elgoibarko bizimoduari buruz, 1930etik 1936ra arte prentsan **euskaraz argitaratutako kronika eta albisteak batu eta digitalizatu zituzten.**



Mikel Ibañez preso elgoibartarraren osasun egoera eskasa zela-eta, hainbat mobilizazio egin ziren baldintzarik gabe aske lagatzeko eskatuz, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deituta. Epaileak espetxealdi arindua jarri zion eta Donostia Ospitalean sartu zuten Ibañez, kimioterapia saioak hartzeko. Ospitaleko aldia amaituta, etxera eraman zuten Ibañez, espetxealdia han betetzeko. Amnistiaren Aldeko Mugimenduak PSOEren gobernua egin zuen Ibañezen egoeraren erantzule.



Udalak, Debemen elkartek eta Elgoibarko hainbat baserritarek indarrak batu zituzten **hileko azken zapatuko feria berrindartzeko.** Ekainetik aurrera, azokak indar handiagoa hartuko zuen.



Ikusmina sortu zuen Deba ibaian aske zebilen **orkatzak.** Baina ez zen lehen aldia izan. Gerora, gehiagotan agertu izan dira orkatzak Deba ibaian. Izan ere asko ugaltu da animalia hori inguruetako mendietan. Ondorioz, baserritarrak kezu azaldu dira, zuhaitz aldatu berriak hondatzen dituztelako. Inguruotan orkatzek ez dute harrapari naturalik.



Lanbroa



**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

Jaika

jatetxea

Ondo pasa gabonak!!

Pedro Muguruza, 27 behea · Tel.: 943 74 10 29



Txintxo

INMOBILIARIA

San Bartolome, 2 behea
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 743 465



Debabarreneko BTT zentro berria zabaldu zuten. Mintxetan kokatu zuten harrera gunea, turismoa eta natura uztartzeko. Hamalau ibilbide ditu, zailtasunaren arabera mailakatuak. Mintxetako harrera gunean bizikletak alokatu daitezke, dutxatu eta bizikletak garbitzeko aukera ere badago.



Udalak Mintxetako kirol gunean **bi jolas ekipamendu berri aurkeztu zituen**: tenis pista eta hainbat kiroletako pista. Hainbat kiroletako pista eskualdeko lehena da, eta 70.000 euroko kostua eduki du; tenis pista, 35.000 eurokoa. Pista egunean bertan edo aurreko egunean alokatu daiteke.



Santa Ana, Olaso eta Madala ingurunean egingo dituzten **obrei buruzko informazioa** eskaini zuen Udalak uztailearen 16tik 31ra bitartean egindako erakusketan. Kultur Etxean jarri zuten hiru leku horietan egin beharreko obren informazio guztia: aurrekontuak, erabiliko dituzten materialak, epeak, planoak... Horrez gain, hamar minutuko bideo bat ere eman zuten, gune horiek gaur egun nola dauden azaltzeko eta ondoren zelakoak izango diren erakusteko.



ONDO PARRA JAIK!

- ELKARTEEN ALDAKUNTZA, ELKARTZE ETA ERAKETA.
- LAN, KONTABILITATE eta FISKAL AHOLKULARITZA.
- ALOKATZE KONTRATUAK
- JUBILAZIOA (Pentsioak)

P. M. Urruzuno, 6. - Tel.: 943 743 140 - Faxa: 943 744 123 - 20870 Elgoibar
E-posta: norfo@norfo.es

BIAK

ileapaindegia

San Inazio, 4
Tel.: 943 742 725
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



Baltzola anaiak *Fabrez 02* trikiti diskoan hartu zuten parte. Bost pieza biltzen ditu, sueltokoak eta lotutakoak. Lau bikote bildu zituen soinu eta pandero hutsez, eta bikote bakoitzak bost pieza grabatu zituen.



Datozen hiru urteetan Udalak egingo dituen azterketak eta jarduerak jasotzen dituen **Legealdi Plana onartu zuen osoko bilkurak** EAJ, EA, PSE-EE eta PPko zinegotzien aldeko botoekin. EB-Aralarrek kontra bozkatu zuen. Euren ustez ez zegoen enpresa pribatu bat kontratatu beharrik, eta alderdi politikoaren eguneroko ekarpenak jasotzea nahikoa izango litzateke. Legealdi Planak hogei lan arlo jasotzen ditu: kultura, euskara, garapen urbanistikoa eta hezkuntza, besteak beste. Datozen urteotan egin beharreko lanak aipatzen dira txostenean. Udal aurrekontuaren %30 erabiliko dute txostenean jasotako ekintzak betetzeko.



NOVAK C.B.

Mekanizatuak

Olaso industrialdea 27
Tel. 943 74 85 73
Faxa: 943 74 39 01
20870 Elgoibar
novak@menovak.com

Zorionak eta Eguberri On!



△
Maria Sainz Sarobe elgoibartarak ehun urte bete zituen abuztuaren 15ean. Mariaren esanetan, berak eginiko berakatz zopa da hainbeste urte hartu izanaren arrazoia. Jaiotzez Gareskoa (Nafarroa) da, baina Elgoibarrera ezkondu zen. 2005. urteaz geroztik Zarauzko Santa Ana egoitzan bizi da.



Hector eta David Garrido anaiek **ome-naldi txikia** egin zioten Madalako petri-lari San Bartolome jaietan. 800 pegan-tina atera zituzten euskaraz, gazte-laraz eta ingelesez, petril zati bat apa-drinatzeke eskatuz. Udala Madalan egiten ari den obrei buruzko informa-zioa ikusi zutenean hasi zen guztia.

Zubibai elkarteak antolatuta, **ehiza hegaztien erakustaldia** egin zuten Altzolan uztailaren 20an. Aske laga zuten zapelatz ez zen jabearen besora itzuli. Abuztuaren 2an aurkitu zuten Asturias aldean. Oviedo inguruko berdegune batean agertu zen egarritz, kolpe handi batekin eta nekatuta, 300 kilometro inguruko hegaldia egin ostean.



Mausitxa baserriko Rosa Mari salegik bota zuen Sanbartolome-etako txupina. Alfredo Etxeberria alkateak azaldu zituen Rosa Mari Salegi aukeratu izanaren arrazoiak: "landa, nekazal, baserri, enpresa eta hainbat arlotan antolatzaile eta produktore moduan eduki duen jarduera azpimarratu eta eskertzeaz gain, ordezkari aproposa dela iruditu zait".

talleres
ZAILDU S/L

- Makinaria konpontzen espezialistak.
- Mandrinadorean planoekin egindako lanak.
- Prentsa Goiti eta mandrinadora AYCE-ren mantenimendua.

Gabon jai zoriontsuak elgoibartar guztioi!

Santa Klara, 40
 Tel 943 74 07 60
 Faxa: 943 74 39 95

BRONyMEC

- Metal ez ferriko, plastiko tekniko eta konpositeak
- Mekanizazio lanak

Arriaga poligonoa
 Ferrerías, 4
 Tel. 943 742 807
 Faxa: 943 742 354

www.bronymec.com
 comercial@bronymec.com

KANDALO

OIHALAK MERTZERIA

NEURRIRA EGINDAKO JANTZIAK

Gabon jai zoriontsuak!

San Bartolome, 19 • Tel: 943 74 35 95

25. URTEURRENA (1983-2008)

Gabonetako bertso jaialdi berezia

Elgoibar



Xabier Amuriza
Andoni Egaña
Unai Iturriaga
Maialen Lujanbio
Uxue Alberdi
Beñat Gaztelumendi

Gai-jartzailea: Saroi Jauregi

Abenduak 26, ostirala
Herriko Antzokian
22:30ean

Prezioa: 9 € (6 € Elgoibarko Izarrako bazkideek)
Sarreraren aurre-salmenta Elgoibarko Izarran
(abenduaren 23ra arte)

Antolatzailea:



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



Elgoibarko
Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Hamabost hilabete kartze-
lan eman ondoren, abuz-
tuan **askatu zuten Arnaldo
Otegi**, eta irailaren 6an
egin zioten ongi-etorria
Plaza Handian. Elgoibarko
Ezker Abertzaleko kideek
ekitaldi xumea antolatu zu-
ten arren, Euskal Herriko
leku askotatik etorri zen
jendea ongi-etorria emate-
ra. Irribarretsu agertu zen
Arnaldo Otegi, eta beste
negoziario bat irekiko zela
adierazi zuen.



Anbolo lora hil zen irailan. 52 urte inguru zituen Ego-To-
ki elkarteko loraok, eta irailaren 12an hilda aurkitu zuten.
1957an ekarri zuen lora Juanito Lejarzak Gineatik, eta
ordutik elkarteko ikur bilakatu da. Lora diseatu egin du-
te elkarteko bazkideek, eta berriz ere bertan ipini dute.



Mendaroko lau gaztek "Arno, piztiak eta
bandiduak" liburua kaleratu zuten. Alain
Ulazia, Aitor Basurto, Paula Heras eta Ibai
Portu mendaroarak irailaren 20an egin zu-
ten liburuaren aurkezpena. Arno mendian
ibiltzen ziren bandidu, mito eta kondairak di-
ra liburuaren ardatza.



Rosario 30, behea
Tel.: 943 53 10 68
20870 ELGOIBAR

Opariak
Dekorazioa
Altzariak

Lombok

USATORRE
Taberna

Jai
zoriontsuak
igaro!

San Antolin, 6 Tel. 943 74 17 99

albe, s.l.

► LAUKETAK
► MORTASAKETAK
► BROTXAKETAK

GABON ZORIONTSUAK
ELGOIBAR!

Sigma Industrialdea
Xixilion, 2 beheko solairua 9
Tel. 943 743 286
ELGOIBAR (GIPUZKOA)
talbe@euskalnet.net / www.albesl.com



Skull Riders taldeak antolatuta, **motorren kontzentrazioa** izan zen Plaza Handian. Ekitaldiak sekulako arrakasta izan zuen: 300 motor inguru eta 500 pertsona bildu ziren. 92 kilometroko ibilaldia egin ondoren, bazkaria egin zuten Sigmako aparkalekuan.

Debabarreneko tenis eskola sortu zuen 40-15 elkarteak. Denboraldi guztirako tenis ikastaroak antolatu ditu 40-15 elkarteak, eta eskualdeko tenis eskola sortu zuen. Jonathan Taborcia eta Ander Mujika dira irakasleak.



Asier Saiz mendi injineruak egindako lan bati esker 200.000 euroko saria jaso zuen Palentziako Diputazioak. Hamazortzi urterekin joan zen gazte hau Palentzia aldera. Urtxakurrei buruzko azterketa egin zuen, eta horri esker, Palentziako ibai eta erreken osasun egoera ezagutu ahal izan dute. Berak egindako lanari esker, bost erreka berreskuratuko dituzte.

DARRAGA KAFEAK
S. FRANCISCO XAVIER 17

ELGOIBAR Ondo pasa jaiak!

Eguneroko errealdiak

Olaso industrialdea, 15 (55 E lokala)
Tel. 943 74 05 33 - Mugikorra: 675 70 87 39

ETXEPE Lan bereziak

T: 943 741 297 / 943 740 664
F: 943 744 321

www.etxepe.com
etxepe@etxepe.com

ZAZPI INFORMATIKA

Bernardo Ezeiz, 15 behea
Tel. / Faxa: 943 74 37 87
E-maila: zazpi@telefonica.net

20870 - ELGOIBAR (Gipuzkoa)

GABON JAI ZORIONTSUAK!

Fernando Bert elgoibartarra urriaren 10ean epaitu zuten Audiencia Nazionalean. Proba faltagatik absolbitu eta aske laga zuten.



Udal Euskaltegiak 25 urte egin ditu. 1983ko urriaren zabaldu zituen ateak, ikasturte osoan zehar 25. urteurrena ospatzeko ekitaldiak izan dira.



Mausitxako gaztak lehenengo saria eskuratu zuen munduko gazta lehiaketan. Dublinoan egin zen World Cheese Awards sariketan, mundu osoko 2.000 gaztarekin lehiatu zen Elgoibarko gazta, eta bere kategorian bere izan zen irabazle.



Gotzon Garate idazle eta euskaltzalea hil zen urriaren 8an, minbiziak jota. Euskararen eta euskal literaturaren adierazle nagusienetakoa izan zen. Ondare handia laga du Gotzonek gure artean, 30 liburu baino gehiago idatzi baitzituen.

Laguarin
PANADERIA & OKINDEGIA

Baserriko produktuak - Taula iberikoak
Gabonetako otarrak - Ardoa, txakolina eta sagardoa

San Bartolome, 10 - Tel.: 943 530 780

GABON ZORIONTSUAK GUZTIO!!

empresita

ARRILLAGA

Tien gaitoriko apartakeluzen gaitorik
Tel: 943 74 01 87 20871 - ELGOIBAR (Gipuzkoa)

35. urteurrena

IPINTZA

MARGOAK S.L.

000 Pladurra
000 Gortinak eta alfonbrak
000 Fatxada zaharberritzeak
000 Lur eta hormen era guztietako estaldura arinak

Gabon jai zoriontsuak!

SAR ZAITEZ ETA ESKATU AURREKONTUA!


Xixilion P-2 • 2. solairua, 11 zbk. • Foruen plaza, 4. • Biltegia: Errosario kalea, 7
Tel.: 943 74 04 40 • 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa) • ipintzamargoak@hotmail.com



Urteko fabrikatzaierik onenaren saria jaso zuen Ideko-IK4 zentro teknologikoak. Enpresa elgoibartarrak berrikuntzarekin duen etengabeko konpromisoa hartu zuen kontuan epaimahaiak. Bestalde, Idekok eraikin berria inauguratu zuen otsailean.



Itziar Gurrutxagak futbola laga zue, ez baitzion 08-09 denboraldiari ekin. Hamabost urterekin hasi zen futboleant, eta Elgoibar eta Eibar taldeetan jardun ondoren, Athleticera iritsi zen. Lau Superliga irabazi ditu talde zuri-gorriarekin, baina futbola lagatzeko uea iritsi zaiola esan zigun.



Angel Ugarteburuk *Miloiatik mundura* liburua argitaratu zuen. Bere ume denborako istorioak jaso ditu liburuan, batez ere. Anaiak atzerritik bidalitako bertsoak biltzen ditu lehenengo zatian, bigarren partea autobiografikoa da, eskola garaikoa eta azken zatiak baserriko kontuak batzen ditu.



Anbolo, nesken saskibaloit taldea sortu dute. 1996 eta 1997an jaiotako neskek saskibaloit talde berria osatu dute, eta urrian hasi zuten denboraldia, ilusioz beterik.



BOLINTXO

OKINDEGIÀ



Gaban zoriantsuak!



San Frantzisko, 17
Tel.: 943 74 33 78



Zuhaitz Gurrutxagak jokutzen duen Real Union taldeak Real Madril kanporatu zuen Kopa Txapelketatik. Garaipen historikoa lortu zuen Irungo taldeak Santiago Bernabeu futbol zelaian, eta jokalaria elgoibartarra estatuko hainbat mediotan protagonista izan zen egun horietan.



Imanol Santosek New Yorkeko maratoian hartu zuen parte. Korrikalari elgoibartarra lesionatu egin zen 30. kilometroan, baina, hala eta guztiz ere, hiru ordu eta hamaika minutuko denbora bikaina egin zuen.



Madalako petrila kendu zuten. Ingurunea oinezkoentzako bihurtzeko asmoz, **Madalako obrak hasi ziren**, eta hainbeste urtetan ingurune horretako parte zen petrila kendu zuten. Pare bat aste beranduago hasi ziren Santa Ana kaleko obrak, eta 2009an ekingo diote Olasoko errotonda egiteari.



Jai zoriontsuak eta urte berri on!

Makina Erremintaren Institutua
Azkue Auzoa, 1- 20870 Elgoibar
Tfnos. 43744132
imh@imh.es - www.imh.es





Krisi ekonomikoaren ondorioz, **Mupem enpresan lau langile kaleratu zituzten**. Krisiak herriko beste enpresa batzuetan ere izan du eragina: Rodisa, Antxustegi...



Estatu Batuetako Paul eta Craig Pumphrey anaiak **indar erakustaldia** egin zuten Plaza Handian. National Geographic telebista kateko *Superhumans* saiorko grabaketa egin zuten. Elgoibartarrak aho zabalik geratu ziren.



Goazen, euskarazko lehen film musika estreinatzen zen Elgoibarren. **Josu Mujika** dantzari elgoibartarrak prestatu zituen pelikularako koreografiak, eta aktore moduan ere paper txiki bat antzeztu du.



Elgoibar Koloretan mahai-jokoa kaleratu zuen Elgoibar-ko Izarrak. Gure herria hobeto ezagutzeko helburuarekin prestatu du lan hori elkarteak. 900 galdera dauzka mahai-jokoak, 150 fitxatan banatuta.

JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI"

EDARI BANATZAILEA

SANTA ANA, 41
☎ 943 74 10 41
Mobila: 659 77 23 89





△
Danobat Taldeak 50 milioi euroko eskaera bereganatu du trenbide sektoreko enpresa errusiar baten eskutik. Espainiako erreminta-makinaren sektorean inoiz izan den eskaerarik handiena izan da. Danobat Taldea liderra da Espainiako erreminta-makinaren sektorean.



△
 Elgoibarko Izarrak antolatzen duen **Gabonetako bertso saioak 25 urte** bete ditu. Elkarteak, *Abendua Bertsoan* egitasmoa antolatu du, eta bertsolari-tzari lotutako hainbat ekitaldi izango dira hilabetean zehar.



△
Evelyn Santos Realeko futbolariaren alderik sensualena ezagutu genuen. Elgoibartarrak ETB2ko *El Calendario del Año* saioan hartu zuen parte, bere taldekideekin batera



△
Iñaki Lucasek Espainiako Eskrima Txapelketa irabazi zuen. Elgoibartarrak maila bikaina erakutsi zuen borroka guztiak irabazita.



San Bartolome, 34-35 - Tel. 943 74 03 45

Murumendiarrak gozotegiak

Gabon jai gozo-gozoak
opa dizkizue herritar guztioi


Urte Berri On!








Elgoibarko EAJ-PNVk
jai zoriontsuak opa dizkizue
elgoibartar guztioi.





ASKETA S.L.

Eraikuntzako zerbitzu integrala

Maxpe, 3-5 behea

20820 DEBA

Tel.: 943 19 19 52 (6 linea)

Faxa: 943 19 24 60

E-posta: asketa@telefonica.net

www.asketa-reformas.com

Fatxada eta teilatuetan espezialitatea

Gehienezko kalitatea prezio onenean



Lehen



Orain



Santa Klara, 26 behea ezkerre

Te.: 943 74 15 52 / 606 43 11 20

**GEHIENKO BERMEA
AKABERA ETA GARBIKETAN!**

www.blokdekorazioa.com

biokdekorazioa@euskalnet.net

Eskatu aurrekontua

konpromisorik gabe!





Luis F. Beristain
Korporazioa
xey **FORMA**
banatzaile ofiziala

ETXEKIT

12 urteko bermea
Arrillaga z/g - Elgoibar
Tel. 943 74 43 47

Zerbitzu iraunkorra: 943 74 13 27



EHORZKETA-TANATORIOA
ETXEBERRIA, S.L.




BEILATOKIA




Santa Klara, 16 behea • ELGOIBAR
Tel: 943 741 656 / 943 740 117
Mugikorra: 635 75 62 95
E-posta: tanaetxe@terra.es



Burtsa informatikoa



GABILONDO

317 api

INMOBILIARIA AGENTZIA
Zuzenbidean lizentziatua

API { Eburne Gabilondo Loyola
Jose M^a Azpeleta Iturricastillo

Jai zoriontsuak denoi

LEKU ALDAKETA DATORREN ASTEAN

SAN FRANTZISKO 51, BEHEA - ELGOIBAR - Tel: 943 74 44 67

Danbaka III. MUSIKA LEHIAKETA

77ko kutsua duen punk-rocka, powerpop indartsua eta saxoaren ñabardurak

Gaur, barixakua, bitxikeri batekin hasiko dugu gaua. Hain zuzen ere, Arrasateko The Motherfuckers taldeak bi kontzertu ditu gau berean. Hala, aurtengo Danbakako seigarren gaua zabaldu ostean, alde egingo dute. Horien ostean, aurtengo Eskoriatzako ordezkari bakarra: Barua Banda. Saxoak berezitasun handia ematen die euskaraz abestutako rock kantuei, eta ziur herrikide asko batu-ko dituztela. Durangaldeko azkeneko ordezkaria Tuesday Evenings taldea da. Power-pop, gitarra gogor- gorrak, distortsioa eta melodia, guztiak batzen dituzte. Gaueko azkeneko taldea Soraluze-ko Revelphone izango da, *Danbaka.com* web gunean jarraitzaileek gehien bozkatu zuten taldea. Punk-rocka eta doinu itsaskorrek batzen dituzte.




The motherfuckers (Arrasate) Hasiera baten hainbat musikarik denborapasa sortutako taldea da, baina tarteka kontzertuak egiten dituzte. Proiektu honetan ingelesa eta gaztelera tartekatzen dituzte, eta 77ko punka, punk-rocka eta rock-and-rolletik hurbil dabilta.



Barua Banda (Eskoriatza) Orain arte hiru kontzertu eman dituzte, guztiak Eskoriatzan, eta aldaketa batzuk izan berri dituzte taldean. Euskarazko rocka egiten dute, oso estilopertsonalarekin, eta emaitza asko aberasten dute saxoaren laguntzarekin.



Tuesday Evenings (Durango) Ingelesez abestutako kantuetan hainbat estilo batzen dituzte. Taldekideek powerpop eta rockaren artean kokatzen direla diote, baina askoz gehiago dagoela esan dezakegu: hala nola, gitarra gogorak, psikodelia eta baita, tarteka, noise-poparen aztarnak.



Revelphone (Soraluze) Pare bat maketa kaleratu izan dituzte, eta Soraluzen eta Debabarrenean batez ere hainbat kontzertu eman dituzte. Euskaraz abesten dute, eta rockaren eta punk-rockaren arteko kantuek egiten dituzte, amorrua eta melodia uztartuta.

KONTZERTUA

Gaur, barixakua. 22:30.Elgetako Espaloia. 5 euro (Gaztekutxa, 3 euro).

www.danbaka.com

DANBAKA

III. MUSIKA LEHIAKETA

DEBABARRENA DEBAGOIENA DURANGALDEA

BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA



HEDABIDE LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA






Ludotekako arduradunei txalo bat eman nahi diegu, joan zen asteko Irteeragatik:

“Goizean Ataungo baserri batera joan ginen, arkumeak nola hazten dituzten ikustera, eta oso ondo hartu gintuzten bertan. Hamabost egun zituzten arkumetxoak ikusi genituen, eta oso polita izan zen. Arratsaldean Idiazabalgo gaztaren museoa bisitatu genuen, eta gauza oso interesgarriak ikasi genituen. Eguraldi txarra egin arren, dena oso ondo atera zen. Txoferrari ere eskerrak eman nahi dizkiogu, bidearen eta eguraldiaren zailtasunak oso ondo gainditu zituelako. Txalo handi bat guztioi, eta segi horrela!”



Sukaldaritza begetarianoaren antolatzaileen partez, eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi: “Oso pozik gaude ikastaroak edukitako harrerarekin eta jendearen erantzunarekin, izan ere, adin guztietako jendea izan dugu ikastaroan, gainera, beste proposamen batzuk eskaini dizkigute, bai Elgoibarren baita inguruko herrietan ere. Sukaldea laborategi txiki bihurtu dugu, eta bertan janariaren propietateekin, koloreekin eta zaporeekin ikertzen aritu gara. Ahal izan dugun guztietan elikagai biologikoak, kalitate onekoak eta herrian erositakoak izan dira. Garrantzi handia eman diogu elikagaien sorlekuari eta izan duen prozesuari. Izan dadila elikagaia zure sendagaia, eta sendagia zure elikagaia”

Ane Perez eta Aspanovas Gipuzkoa elkarteak herriko sei dendari eskerrak eman nahi dizkie: “Aspanovas Gipuzkoa elkarteak umeentzako festa egin zuen Donostiako Ospitalean, eta bertako ume guztiei opariak eman zizkieten. Elgoibarko sei dendak lagundu dute ekimen horretan, eta Ane Perezek eskerrak eman nahi dizkie Aspanovasen ize-nean: Ize liburudenda, Astigarraga kirolak, Mekanosa, Dori, Pitxintxu eta Iriondo kirolak”.



Urasandi 2, 1. solairua
Tel./Faxa: 943 742 941
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

Amacén

Gloria

okindegia

Upai Zaharra, behea
Tel.: 635 747 145
Elgoibar

- Delicatessen
- Gabonetako otarrak
- Urdaitegia
- Pastelak
- Aurrekozinatutako janaria

LA BODEGA

ERRETEGIA

GOGORARAZTEN DA ERRETEGI HONEK BETIKO EGUNEKO MENUA, BOST MENU BEREZIAK ETA KARTA MANTETZEN DITUELA GABONETARAKO

Pedro Muguruza, 22
Tel.: 943 742 500
943 744 008
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

JABI FERNANDEZ

Urgaziko kidea

Jabi Fernandez elgoibartarra Urgazi Triatloi Taldeko kidea da. Lana, familia, neska-laguna eta kirola uztartzea ez dela lan erraza uste du, baina argi dauka entrenatzeko orduan bere buruari ez diola egutegi bat inposatuko momentuan, gogoaren arabera egin nahi du-eta. Aurten proba mordotan hartu du parte eta datorren urtean pixka bat lasaiago ibiltzeko asmoa dauka.

“Ez naiz lasterketak irabaztera joaten, amaitzera baino”

Orain hiru urte Urgazi triatloi taldea San Silbestre lasterketa antolatzen hasi zen, eta arrakasta lortu du.

Lehen urtean oso ondo atera zen, uste genuena baino hobeto, eta iaz, lehen urtean baino parte hartzaile gehiago egon ziren. Lehen urtean 160 lagun inguruk hartu zuten parte lasterketan, eta iaz 200 antxintxikarik. Aurten 250 inguru izatea espero dugu.

Herritar askok hartzen du parte...

Parte hartzen duen jendea ia gehiena herrikoa izaten da. Herritarrok batu eta giro polita sortzen dugu. Aurten gainera, jai antzeko bat egingo dugu: giro polita egongo dela esan dezaket bakarrik. Batzuk urte osoan zehar egiten dute antxintxika eta urtea ere lasterka egiten amaitzea erabakitzen dute. Beste batzuk, urtean zehar korrika egin ez arren, San Silbestreko lasterketan parte hartzea erabakitzen dute: azken batean bost kilometro dira eta ez da oso gogorra.

Baina zuk ezin lasterka egin...

Urte osoa lasterketetan parte hartzen ematen dut, eta batzuetan antolatzea ere tokatzen da. San Silbestrekoa da adibidea. Antolatzailen taldean egoten naiz urtero, eta egia esan, gustatzen zait. Lasterka doazenak animatzen aritzen gara eta giroa sortzen da. Gainera, ez dago saririk, jendea parte hartzera joaten da.

Urgazi triatloi taldekoa zara. Noiztik hartzen duzu parte triatloietan?

Urgazi triatloi taldeko kidea 2006 urtetik naiz. Aurrez, Arrasateko Atxixinka Debagoiena taldean egin nuen urtebete baino han mendiko duatloiak egiten nituen. 2006 urtean hasiera zihozela enteratu nintzen, eta nik ere parte hartzea erabaki nuen *de rebote*. Mendia beti gustatu izan zait, *mountainbike* eta lasterka egitea, eta horrexegatik hasi nintzen Arrasaten. Baina urtebeteren ostean laga egin nuen. Surf egiten hasi nintzen gero, eta igeri egitea komeniga-



ria zenez, horretan hasi nintzen. Horretan ari nintzela, Urgazikoak hasi behar zirela enteratu nintzen, eta 1998 urtetik nuen triatloi batean parte hartzeko gogo, beraz, hastea erabaki nuen.

Lehen urtea, 2006koa, eta hiru triatloi egin zenituen... ez da marka makala!

Oso gustura aritu nintzen. Hirurak oso ondo egin nituen, baina igeri egiteko proban, hasiberria nintzela eta, sufritu egin nuen. Jende asko edukitzen duzu inguruan, eta uretako lehen 300 metroetan oso gaizki pasatzen dut. Ez da tokirik egoten igeri egiteko, eta elkar jotzen egoten dira parte hartzaileak. Lehenengo triatloian, uretatik irteteko gutxi falta zitzaidala, ostikoa eman zidaten aurpegian eta odoletan atera nintzen. Ingurura begiratu eta gainontzekoak ere kolpez josita atera zirela ikusi nuen. Baina gustura amaitu nuen: ez naiz lasterketak irabaztera joaten, amaitzera baino.

Eta gero, bizikleta...

Ni neu ez naiz oso ondo moldatzen bizikleta gainean. Mendian ondo aritzen naiz: izan ere, daukadan gorputzagatik, potentzia aldetik hobeto aritzen naiz erresistentzia aldetik baino. Errepideko bizikleta hartu eta gehiago kostatzen zait mendikoa baino.

Ze entrenamendu egiten duzu?

Ez zait gustatzen neure buruari entrenamendua inposatzea, momentuko gogoaren arabera egiten dut kirol bat edo bestea. Baina triatloia egiteko, urtea hileka banatzen dut. Komenigarria da urri edo azaroan entrenamendu suabea egiten hastea. Urtarriletik martxora gogorragoa hasten naiz, eta martxoan, probak hasten direnean, batera eta bestera ibili. Ekaina-uztaila iristen denean, denboraldia amaitzen denean, indar gabe egoten naiz. Baina lasterketa interesgarri bat dudanean aurrean, parte hartzeko gogo etortzen zait, gogorra izan arren: antolatzen badute, egin ahal delako izango da.

Eskolarteko Xake Txapelketan, Markel Kerexeta izan da onena

Bestalde, Nazioarteko Xake Txapelketako sariak, gaur

Joan den asteburuan, domekan, Eskolarteko Xake Txapelketa jokatu zuten. Iaz baino parte hartzaile gutxiago aritu dira aurten, baina urteroko moduan maila ona erakutsi zuten. Irabazlea zortzi urteko elgoibartarra izan zen: Markel Kerexeta.

Sei eta hamabi urte bitarteko umeek parte hartu zuten eta irabazlea azken partidaren erabaki zen. Markel Kerexetaren Guillermo Hijanoren aurka irabazi beharra zeukan txapelketa izateko, eta azken partidaren lortu zuten garaipena.

Sari banaketa, 14:00etan

Bestalde, Nazioarteko Xake Txapelketa joan den barixakuan hasi zen, eta



gaur egingo dute sari banaketa, 14:00etan, udaletxeko pleno aretoan.

Xakearekin jarraituta, Egoitz Irure, Elgoibarko ikastolako xake maisua, xakeko Gipuzkoako txapelketa ari da jokatzeko. Momentuz, bigarren postuan doa.

Angel Mari Lopez lasterkaria Gipuzkoako txapeldun



Angel Mari Lopezek Gipuzkoako Atletismo Txapelketan junior mailako lasterketa, 5.900 metrokoa, irabazi zuen joan den domekan (abenduak 14) Lazkaon. 2006an Gipuzkoako Kros Txapelketa irabazi zuen Lopezek, baina azken bi urteak ez dira gozoak izan berarentzat, lesioetatik ezin irten da ibili baita. Mintxeta Atletismo Taldeko antxintxikari gehiago ere izan ziren Lazkaon.

Eskubaloian, Federopticos Ikus Gipuzkoako txapeldun

Eskubaloian, Elgoibarko Federopticos Ikus kadete nesken taldeak Gipuzkoako txapela lortu du, asteburu honetan Zarautz eta Egiako taldeen kontra partida gogorrek jokatu ondoren. Aipatzekoa da Ikus taldeko neska horiek aurreko denboraldian ere Gipuzkoako txapeldun izan zirela infantil mailan. Zorionak!



EMAITZAK

FUTBOLA

Elgoibar 1 – Añorga 4 (Haundi)

Elgoibar 4 – Aretxabaleta B 4 (1. erreg.)

Ilintxa 1 – Elgoibar 0 (Jub.)

Zarautz 2 – Elgoibar 0 (Kad.)

Ilintxa 1 – Elgoibar 5 (Inf.)

Elgoibar 1 – Lagun Onak 2 (Tx.)

ESKUBALOA

IES Construcc 25 – Tecnifuelle Elg. 17 (Sen. nes.)

Aiala Zarautz 33 – Cometel Elg. 9 (Jub. nes.)

Aiala Zarautz 23 – IMH Elg. 32 (Kad. nes.)

Alkorta Elgo. 29 – Leizaran 23 (Sen.mut.)

Groseko 25 – Alkorta Elg. 30 (Sen. mut.)

Ikus Elgo. 26 – Egi 24 (Kad. nes.)

Zarautz 23 – Ikus Elgo. 23 (Kad. nes.)

Astigarraga Elgo. 9 – Aloña 22 (Inf. nes.)

Urola 9 – Aterpe Elgo. 26 (Inf. nes.)

Arrate 8 – Lili Elgo. 21 (Inf. nes.)

Bankoa Elgo. 32 – Aloña 12 (Inf. mut.)

AGENDA

PILOTA

San Migeleko txapelketa finala

Zapatua, 20

19:00 Xabi Arrillaga-Andoni Egaña

Gontzal Urionabarrenexea-Basueta

San Anton Tomeoa (Ikastolan)

Urtarrilak, 2

22:00 Gorka – Merino (Promesak)

Kepa Arrizabalaga-Bergera

23:30 Rico-Otxotorena

Atxotegi-Loiola (Nagusiak)

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 20

15:45 Kenci – Komodon (Nazional B)

Domekia, 21

12:30 Elgoibar – Asador Azitain (Jub.)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 20

9:30 Pneumax Elg. – Pulpo (Kad.mut.)

17:30 Tecnifuelle Elg. – San Adrian (Sen.nesk.)

19:00 Alkorta Elg. – Rotual Estudio (Sen.mut.)

Iñaki Badiola Gipuzkoako

onena da arku olinpikoarekin

Joan den asteburuan Gipuzkoako arku tiraketa txapelketa jokatu zuten Elgoibarren, eta Iñaki Badiola elgoibartarrak lortu zuen txapela arku olinpikoen sailean. Martin Agirregomezkorta laugarren postuan sailkatu zen. Arku tradizionean, Jabier Varona elgoibartarra izan zen onena. Poledun arkuetan Itzargi Monasteriok eta Joseba Fernandezek ez zuten lortu finalerako sailkatzea: hamabosgarren eta hamazortzigarren sailkatu ziren, hurrenez hurren.

Veneziaren arima eta mamia

Esmeralda Zapparoliren argazki erakusketa zabalduko da gaur Kultur Etxean

Egoibarren bizi den Esmeralda Zapparoli argazkilariak Veneziaren arima jasotzen urteetan jardun ondoren, Kultur Etxean erakutsiko ditu erretratuok. Esmeraldak *Esencia* izenburua jarri dio erakusketari, eta gaurtik hasita urtarrilaren 10era arte ikusteko aukera izango da. Esmeraldak Venezia ondo ezagutzen duenez, hiriaren irudi tipikoa albo batera laga eta beste begi batzuekin begiratu dio.

Urtarrilaren 10era arte ikusteko aukera izango da. Ongarri argazkilaritza taldeak eta Udalak antolatutako erakusketa egunero bisitatu ahal izango da, 19:00etatik 21:00etara, jai egunetan, domeketan eta abenduaren 24 eta 31n izan ezik.



Musika Bandaren kontzertuak

Gabonetan bi kontzertu eskainiko ditu Udal Musika Bandak, abenduaren 21ean eta urtarrilaren 6an. Kontzertu biak Herriko Antzokian eta 12:30ean izango dira. Horrez gain, Banda kalejiran irtengo da abenduaren 24an, 18:00etatik aurrera.

Abenduaren 21eko egitaraua:

- 1.- *Suspiros del 'Cafe España'* pasodoblea (Alvarez).
- 2.- *Fra Diavolo* obertura (Auber).
- 3.- *Euskeria* kanta (Arim-San Miguel).
- 4.- *La vita e bella* filmaren soinu-banda (Piovani).
- 5.- *Happy Sound Selection* aukeraketa (Cees Vlack).
- 6.- *Ator-ator* gabonetako abestia (Aragues).

Urtarrilaren 6an Duo Plaentxi taldeak pieza bat joko du bandarekin. Egitaraua:

- 1.- *Guadix* pasodoblea (Azpiazu).
- 2.- *Aida* eskena (Verdi).
- 3.- *Balada for band* aukeraketa (A. Waignein)
- 4.- *Jaialdia* euskal kanta (Urkizu).
- 5.- *El pajar Chogui* Duo Plaentxirekin batera (Mujika).
- 6.- *Radetzky* martxa (Strauss).

Musika Eskolak gaur emango du kontzertua

Inazio Bereziartua musika eskola-ko ikasleek gabonetako kontzertua eskainiko dute gaur, barixakua. Emaldia San Bartolome elizan izango da, 20:00etatik aurrera.

Eskaintza zabala izango da eta ikasle askok parte hartuko dute: hari taldekoek, musika tailerrekoek, akordeoi taldekoek, korukoek eta gazteen bandak.



ESKERTZA

VICTOR ORTIZ DE URBINA FORONDA

2008ko abenduaren 7an hil zen.

Haren oroimenez meza izango da, barixakuan, abenduak 19, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiaren. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Plaza Handitik irtengo da Olentzeroren kalejira aurten

Lanak direla eta, urteroko ibilbidea aldatu egin behar izan dute

Olentzeroren kalejira Plaza Handian hasiko dela iragarri du Atxutxiamakak. Aurreko urteetan Madalan hasi bada ere, aurten abiapuntua aldatu behar izan dute, obrak direla eta. Urtero bezala, abenduaren 24an kantuak eta dantzak izango dira Olentzeroren eta Mari Domingirekin batera.

Kalejirak 10:45ean ekingo dio Plaza Handitik. Musika eta dantza eskolako ikasleek ongi etorri berezia eskainiko diete Olentzerori eta Mari Domingiri.

Handik San Bartolome eta San Franzisko kaleetara joko dute. Madalara heldutakoan, Txarridunako biribilgu-

nean hartuko dute buelta. Ibilbideak San Frantzisko eta Errosario kaletik segituko du, Foruen Plazara iritsi arte. Han Haritz dantza taldeak ikuskizuna eskainiko du eta Olentzerori eta Mari Domingiri berba egingo dute.

Ondoren, Olentzerori eta Mari Domingiri *Behin batean Gabonak* idazlehiaketako sariak banatuko dituzte. Bi pertsonaiek umeen eskutitzak jasoko dituzte gero.

Parte hartzeko eta animatzeko deia zabaldu du Atxutxiamakak: "Txikienen poz eta irribarreak jaso baino opari politagorik ez dagoelako", adierazi dute.



Abendua, bertsoz blai



Gabonetako bertso-jaialdi berezia abenduaren 26an izango da, Xabier Amuriza, Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi eta Beñat Gaztelumendirekin, Herriko Antokian 22:30etatik aurrera. Gai jartzailea Saroi Jauregi izango da. Sarrerak Elgoibarko Izarra elkartean eskuratu daitezke hilaren 23a baino lehen, 9 euroan (bazkideentzat, 6).

Jaialdiaren 25. urteurrenaren harira, *Abendua Bertsoan* egitarau berezia jarri du martxan Elgoibarko Izarrak. Gaur, esaterako, bertso afaria izango da Sigman. Argazkian, aurreko barixakuko *Ornitorkus* ikuskizuna.

Gaur izango da gospel kontzertua

Gaur, barixakua, gospel kontzertua eskainiko du The Northern Kentucky Brotherhood Singers taldeak, 22:15etatik aurrera Herriko Antokian. Estatu Batuetan eta Europako hainbat eskenatokitan arrakasta handia izan du taldeak. Maisuak dira doinuak *a capella* abesten. Iaz beste gospel kontzertu bat eskaini zuen Elgoibarko Udalak eta arrakasta handia izan zuenez, aurtengo gabonetan ere era horretako ikuskizuna programatu dute.



ESKERTZA

TXOMIN ELORZA ALZOLA

2008ko abenduaren 2an hil zen, 76 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



OKINDEGIA

21 domeka **ZAGIRRE**
 28 domeka **FOTERO**
 4 domeka **IBARRENEA**
 6 martitzena **BOLINTXO**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

| | |
|--------------------------------|-----------------------------|
| 19 Fernandez | 30 Fernandez |
| 20 Yudego | 31 Etxeberria (Erro.) |
| 21 Yudego | 1 Etxeberria (Erro.) |
| 22 Zabaleta | 2 Garitaonaindia |
| 23 Etxeberria (Erro.) | 3 Etxeberria (S.A) |
| 24 Yudego | 4 Etxeberria (S.A) |
| 25 Yudego | 5 Fernandez |
| 26 Etxeberria (S.A) | 6 Etxeberria (Erro.) |
| 27 Ibañez | 7 Zabaleta |
| <i>*Goizez Etxeberria (Er)</i> | 8 Etxeberria (Erro.) |
| 28 Ibañez | 9 Ibañez |
| 29 Fernandez | |

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
 Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
 Garagarza (MENDARO)
 Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
 Tel: 943 75 13 84

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik

www.elgoiBAREN.net

musika

19 barixakua

20:00 Musika Eskolako en
 kontzertua

Musika Eskolako ikasleek
 Gabonetako kontzertua
 eskainiko dute San Bartolome
 parrokian.

22:15 Gospel kontzertua

*The Northern Kentucky
 brotherhood singers* taldeak
 eskainiko du kontzertua.
 Herriko Antzokian.

21 domeka

12:30 Musika Bandaren
 kontzertua

Herriko Antzokian

24 eguaztrena

18:00 Musika Bandaren
 kalejira

18:00 Parrokiako

Abesbatza

Kaleetan zehar.

2 barixakua

17:30 Musika Eskolako en
 emanaldia

San Lazaro egoitzan.

6 martitzena

12:30 Musika Bandaren
 kontzertua

Goizeko 10:00etan kalejira eta
 emanaldia San Lazaro
 Egoitzan. Eguerdiko
 kontzertuan, Duo
 Plaentxirekin joko dute pieza
 bat. Herriko Antzokian.

erakusketak

19 barixakua

19:00 Esencia

Esmeralda Zapparoliren
 argazki erakusketa.
 Urtarrilaren 10era arte egongo
 da ikusgai Kultur Etxeko
 erakusketa gelan.

24 eguaztrena

19:00 Morkaikoren argazki
 erakusketa

Mendiko argazkien erakusketa
 ikusteko azken eguna.
 Kultur Etxeko sotoan.

aurkezpenak

23 martitzena

20:00 Elgoibar: iragana eta
 oraina

Pello Arrieta eta Julen
 Zabaletak, *Elgoibar: Iragana
 eta oraina* liburua aurkeztuko
 dute. Musika Eskolako
 auditorioan.

hitzaldiak

23 martitzena

19:00 Baserrien etorkizuna

Xabi Akizu eta Pello Rubiok
 baserrien etorkizunari
 buruzko hitzaldia eskainiko
 dute. Kultur Etxeko hitzaldi
 gelan.

bertsoak

26 barixakua

22:30 Bertso jaialdia

Xabier Amuriza, Andoni Ega-
 ña, Unai Iturriaga, Maialen Lu-
 janbio, Uxue Alberdi eta Beñat
 Gaztelumendi.
 Sarrerak salgai Elgoibarko Iza-
 rran.

kirola

19 barixakua

14:00 Xake txapelketa

Nazioarteko Xake
 Txapelketako sariak banatuko
 dira. Udaletxeko pleno
 aretoan.

21 domeka

10:00 Mendi irteera

Ikastolako Gurasoek
 antolatuta, Intxortara egingo
 dute irteera. Ikastolatik.

29 astelehena

10:00 Hockey txapelketa

Kirol Patronatuak antolatuta,
 hockey txapelketa egingo dute
 patinaje pistan. Hilaren 30ean
 ere jokatuko dira partidak.
 Plaza Txikiko pistan.

31 eguaztrena

17:00 San Silvestre

Urgazi Triatloi Taldeak
 antolatuta, III. San Silvestre
 lasterketa. Irteera eta izen-
 ematea Plaza Handian.

ARNOPE



NAYA

I N P R I M A T E G I A K

NAVA

Sarria Ana, 44 - ☎ 208
 Telf. eta Faxa: 943 744 451
 e-mail: nava@euskalnet.net
 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

ARNOPE

Jose M^o Altzibar, 6 - Il. Bokoia
 Telf. eta Faxa: 943 803 194
 e-mail: arnope@terra.es ☎ 56
 20830 MUTRIKU (Gipuzkoa)



Patxi Beitia Arriola

ZUBACOR GERENTEA

Ibailarte kalea, 11
 Tel.: 943 740 844
 Faxa: 943 742 866
 50 posta kuba
 20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
www.zubacor.com
zubacor@zubacor.com

2 barixakua

22:00 San Anton pilota txapelketa

Finalerdiak, Ikastolako frontoian.

7 eguaztena

12:30 Mugerza Krosa

Nazioarteko Mugerza krosaren aurkezpena udaletxean.

22:00 San Anton pilota txapelketa

Finalerdiak, Ikastolako frontoian.



19 barixakua

16:00 Patinatzeko pista

Patinatzeko pista irekiko dute, Plaza Txikian. Urtarrilaren 12ra arte egongo da zabalik.

20:00 Parrokiako jaiotza

Elgojaitza taldeak parrokiako jaiotza inauguratuko du. Urtarrilaren 18ra arte egongo da ikusgai. Parrokiako kaperan.

21 domeka

12:00 Santo Tomas Eguna

Zubibaik antolatuta, salda eta txorizoa banatuko dute Altzolako frontoian.

24 eguaztena

10:45 Olentzeroren kalejira

Elgoibarko Izarrak antolatuta, Olentzerok herriko kaleak zeharkatuko ditu. Irteera Plaza Handian.

15:30 Presoen aldeko Olentzeroren kalejira

Plaza Handitik.

26 barixakua

20:00 Kontzentrazioa

Hilabeteko azken barixakua, presoen eskubideen alde. Plaza Handian.

27 zapatua

13:00 Giza katea

Mikel Ibañez eta gaixorik dauden presoen aldeko giza katea. Nafarroa Plazatik.

3 zapatua

16:00 Autobusa Bilbora

Etxeratak Bilbon egingo duen ekitaldirako autobusa, Plaza Handitik.

5 astelehena

17:30 Jaiotza biziduna

Parrokiako katekistek antolatuta, jaiotza biziduna. Plaza Handian.

18:00 Erregeen kabalgata

Katekesiek antolatuta, Melchor, Gaspar eta Baltasar etorriko dira Elgoibarrera. Harreara, Plaza Handian.

6 martitzena

11:30 Meza berezia

Kristau ikasbidekoen meza, San Bartolome Parrokian. Meltxor, Gaspar eta Baltasar izango dira bertan.

GABON ZAHAR FERIA

27 zapatua

8:30 Baserriko produktuak dastatu eta erosteko aukera izango da. Animaliak egongo dira ikusgai.

10:00 Baltzola Anaiak trikitilarien kalejira.

11:00 Urteko Gazta Txapeldu-na lehiaketa, Pleno Aretoan. Birtartean, Mañukorta, Ziarda eta Meabebasterretxea bertsolariaren jardunaldia. Ordu berean, gaztagintza erakusketa udaletxeko arkupeetan.

12:30 Eusko Label arkume pintxoak eskainiko ditu Elgoibar Ikastolak, Nafarroa Plazan.

13:30 Fruta, barazki eta gazta lehiaketako sari banaketa pleno aretoan.

17:00 Baltzola Anaiak trikitilarien kalejira.

18:00 Erromeria, Plaza Handian.

«Solo quiero caminar»

20, zapatua: 19:00/22:15
21, domeka: 19:00
22, astelehena: 21:30

«Space Chimps»

(umeentzako)
20, zapatua: 16:30

«La buena nueva»

27, zapatua: 19:00/22:15
28, domeka: 19:00 (euskaraz)
29, astelehena: 21:30

«Street dance»

28, domeka: 16:30

«Noches de tormenta»

2, barixakua: 22:15
3, zapatua: 19:00/22:15
4, domeka: 19:00

«Bolt»

4, domeka: 16:30
6, martitzena: 16:30/19:00

Gabon zoriontsuak! LIG

LA INDUSTRIAL GUIPUZCOANA

Antonio Arrillaga, 1-3 behea
Tel.: 943 740 139 - Faxa: 943 740 208
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

Ehiza eta arrantza

Urte berri on!

haur eta gazteentzako weba

Bernardo Ezenarro, 15 behea
20870 ELGOIBAR - Gipuzkoa
Telefonoa: 943 031 130
ikapecb@euskalnet.net

ikane

LODOSO LEIHOAK

Zure neurria egindako lana

Sigmako Industriaidea, Xibilion, 2. pabilioia, 3. zenbakia
Tel.: 943 74 34 90 Faxa: 943 74 73 12
www.lodoso.es
fjodoso@euskalnet.net

ARCO EUROPA GOLD STAR AWARDE KALITATEA

- PVCa
- ALUMINIOA
- TERMIKOA
- ZURA
- ALUMINIOA
- POLIURETANOA



• Zorionak, **Urko**, asteartean hiru urte bete zenituelako. Muxu handi bat aita, ama eta Iratiren partez.



• Zorionak **sorgintxo!** Gaurbi urte bete dituzu; ondo pasa. Familia guztiaren eta bereziki Ane, Irati, Lorea, Julen eta Danelen partez.



• Zorionak **Martin** asteazkenean urtebete egin zenuelako. Muxu handi bat etxekoen eta bereziki Unaien partez.



• Zorionak, **Eider**, urtarrilaren 4an lau urte beteko dituzulako. Ondo pasa eguna familiaren partez eta bereziki Onintzaren partez.



• Zorionak, **aittita** eta **ama**. Zuen biloba Garazi eta Iruneren partez.



• Zorionak, **Oinatz** eta **Markel**, zuen hirugarren urtebetetzean etxekoen partez. Muxu handi bana.



• Zorionak, **Lidia** eta **Naroa**, zuen urtebetetzeak laster direlako. Ondo pasa eguna eta muxu handi bat familiaren partez.



• Zorionak, **Eider**, astelehenean hamar urte beteko dituzulako. Ondo pasa eta muxu bat gurasoen eta bereziki Goizederren partez.




• Zorionak, **Olatz**, abenduaren 25ean hamaika urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



• Zorionak, **Adrian**, hilaren 25ean hamar urte beteko dituzulako Elgoibarko aitona-amona, izeben partez, guraso eta arreba Geneva.



• Zorionak **Maria** bihar zure zortzigarren urtebetetzea delako. Muxu handi bat familia guztiaren partez.



• Txapeldun, **Igor**, bihar hiru urte betetzen dituzu eta etxeko guztien partez, zorionak!



• Zorionak, **Danel!** Astelehenean sei urte beteko dituzulako muxu asko gurasoen partez eta bereziki Uxueren partez.



• Zorionak, **bihurritxo!** Hilaren 28an lau urte handi! Ondo pasa eta milaka muxu! Etxekoak.



• Zorionak, **txapelduna!** Bihar sei urte beteko dituzulako familia eta bereziki Goraneren partez.



• Zorionak, **Clara**, domekan urtebete beteko duzulako. Muxu handi bat familiaren partez.



• Zorionak **Irune Arriola!** Hilaren 29an hiru urte egingo dituzulako muxu bat gurasoen partez eta bereziki Garaziren partez.



• Zorionak, **Iharti** Hamaika urte egin dituzulako ondo pasatu zenuelakoan patxo asko familiaren partez!

karkizano
San Francisco, 14
Tel.: 943 740 549
Elgoibar

Barruko erropak • Umeentzako erropak
San Frantzisko, 10 Tel: 943 74 26 19

POLIKIROLDEGIKO TABERNA
Gabonetan bazkari eta afariak **GABON ZORIONTSUAK!**

San Roke 1, Tel.: 620 13 59 50 Aurretiko enkarguak egin behar dira

ZURE ALDE
ZA
ABOKATUAK

Gabon zoriontsuak!

Komunitateen, ugazabeen aholkularitza.
Zuzenbide penala, zibila, laborala, familiarra.

Iñaki Gil Azpilicueta **Ignacio Vazquez Gonzalez**
Jausoro Plaza, 3 behea e-mail: zurealde@telefonica.net
Tel.: 943 531 351 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)



Gabon zoriontsuak!

ARTISAU-OGIA
EGUR-LABEAN EGINDAKOA,
KONTSERBAK ETA
ARDOAK.

San Bartolome 28
Tel.: 680 724 060



ELGOIBARKO INSTITUTUA
TEL.: 943 74 80 19

**GABON-JAI
ZORIONTSUAK
ETA 2009
URTE BERRI ON**



IHARDUN
MAQUINAS ESPECIALES, S.L.



Makina bereziak

Albitxuri, 1 • 3. pabilioia, K-L
Tel.: 943 74 44 66 • Faxe: 943 53 14 74
ihardun@ihardun.net • www.ihardun.net

PNEUMAX

ENPRESA

PNEUMAX S.A. enpresa, las da, itatiko PNEUMAX S.R.L.aren Espainian dagoen filiala. 25 urte baino gehiagoko esperientzia daukagu automatizazio pneumatikoaren alorrean. Gure Egituraren instalazioek 1.800 m²-ko azalera dute estrategikoki kokatuta iturrien inguruan. Zikloak erantzuteko eta materiala baratzeko diseinatuak diren automatizazio, gure bezeroei zerbitzu onak ematen dituzte.



EGITURA

PNEUMAX S.P.A. ren egitura nagusia Euzkoan dagoen 13.000 m²-ko azalera duela, gure enpresa lasifikazio daren langileak ditu, eta enpresa 24 orduz funtzionatzen du. Bost (5) filial ditu Espainian eta Estatuak, baina baita ere beste kontzesionario eskualdeko beste gohiago batzuk. Egozketak garatzen dituzte instalazio eta produktuen banaketan mundu osoan.



Gabon zoriontsuak herritar guztioi!

KALITATEA ZIURTATZEKO
SOS sistema
ISO 9001/EN 29001
Ereg.zk. ER 1648/2002

PRODUKTUAK

- Gure produktu-gara zabalaren bitartez erabiltzeko dugu automatizazio-lehar baldintzako produktu egoki. Izan ere, gure produktuek ISO Zientzialari Kalitate Sistemaren bitartez (Kalitatearen Zuzentzerako Eskola deitzen diren) probatu, gaitur, fabrikatu, kontrolatu eta mantentzen dira. ISO 9001/EN 29001ekin, fite gure en-
- Airearen bideratzeak (FR) zirkuluak.
 - Mikrobulbakiak
 - Bulbaki eta elektrifikatuak
 - Bulbaki osagaririk eta osagaririk
 - Bulbaki eta elektrifikatuak funtzionak
 - ISO 53991 baratzekoak
 - ISO 6412 mikrobulbakiak
 - ISO 6412 - VDMA 24362 zirkuluak
 - Eusko-antzekoak
 - Bulbaki buruzko zirkulu konpaktuak
 - Zirkulu gaitur zirkuluak
 - Abaketa-erregulazioak bideratzeak
 - Gida-antzekoak
 - Tokiorako MATEMATIKA erregulazioak



PNEUMAX S.A.
Olaso, 54 • Tel: 943 74 47 44-74
Faxa: 943 74 48 76
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

GOKI ERREFORMAK S.L.

Honako instalazioetan baimendutako enpresa:

ERAKUSKETA

- Bainugelak
- Ateak
- Lurrak

OBRAK ETA PROIEKTUAK

- Aroztegia
- Fatxadak
- Teilatuak

EGUZKI - ENERGIA

- Klimatizazioa
- Berokuntza
- Gasa
- Iturgintza
- Erregai likidoak (Gasoleoa)



www.gokierreformak.net
goki@gokierreformak.com

Olaso pol., 15-68 Pb. ELGOIBAR • Tel. 943 74 28 80 / 943 74 42 23 / 943 74 46 40 - Faxa 943 74 45 87

*Anai-arrebak, entzun ene aho-hotsa:
izaite bat ez daike hezur hutsez osa;
herria da gorputza, hizkuntza bihotza;
bertzetik berextean bitarik bakoxta,
izaite horrendako segurra hil hotza.*

-Xalbador-



Zorionak eta Urte Berri on!

Nafarroa Enparantza, 2 – 943 742 731
20870 ELGOIBAR • elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!

Urte berri on!

ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era
15:00etatik-20:30era

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR



- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kreditutxarekin ordaintzeko erraztasunak

ZOZKETA

BI LAGUNENTZAKO BIDAIA KANARIETARA ASTEBETERAKO

Zozketa eguna: 2008/12/22 - (notario aurreko zozketa)



KANPAINA: 2008/04/01etik 2008/12/19ra



correduría de seguros

URNOBITZA S.L.

Pedro Migel Urruzuno kalea, 31 behea
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)



MS - 010

AURREKONTUA ESKATZEAGATIK BAKARRIK ZURE ETXE/AUTO ASEGURURAKO

MADIGAN'S IRISH PUB



GIRORIK ONENA!

- Gosariak
- Razioak
- Entsaladak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Sandwichak
- Postreak



Ordutegia: igandeetan, 10:00etatik aurrera
Astelehenetik larunbatera 7:00etatik aurrera

Bernardo Ezenarro, 2 behea
Tel.: 943 53 15 57



Elgoibarko Merkataria eta Zerbitzu Elkartea

TXANKAKUA ren jaialdia

2008ko abenduak 20 - Larunbata.

Goiz eta arratsaldez

11:00etatik 13:30etara eta 16:30etatik 18:30etara

- **TXU-TXU** trenaren herriko kaleetan zehar.
- **TAILERRAK. Begirale taldearekin (Elgoibarko Izarra):**
Goiz eta arratsaldez tailerrak: gabonetako eskulan eta apaingarriak.
 - > Aurpegiak margotu, marrazkiak, globoflexia, apaingarriak eta jolasak.
 Gune desberdinak, bakoitzak nahi duen jolasean parte hartzeko aukera dauka.
- **Txankakuako maskotek** puxikak eta gozokiak emango dizkizute.



Anima zaitetz, musika eta animazioa egongo da.



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabeteetan interes barik.

2 ANU

1000 l/min
8 Kg

A+ Saliapen energetikoa

GARBIGAILUA P-2810

325 €

FAGOR

2 ANU

1000 l/min
6 Kg

A+ Saliapen energetikoa

GARBIGAILUA 3F-1010

230 €

FAGOR

2 ANU

1200 l/min
7 Kg

A Saliapen energetikoa

GARBIGAILUA ALF-1127

280 €

aspes

2 ANU

ONTZI-GARBIGAILUA
3LF-0130

300 €

FAGOR

BERO URDINA, IZUGARRIZKO AURREZKIA

| | 80 | € |
|------------|-----|-----|
| 610x1060mm | 370 | 345 |
| 610x1060mm | 330 | 315 |
| 610x700mm | 295 | 275 |
| 610x1060mm | 255 | 235 |
| 610x800mm | 215 | 195 |

ED: Elektronikoa digitala
E: Elektronika, estalutia

2 ANU

Fagor Eko-igortze elektrikoak

2 ANU

185
x
60
x
60

A+ Saliapen energetikoa

HOZKAILUA 3FC-61FXD

570 €

FAGOR

2 ANU

185
x
60
x
60

A Saliapen energetikoa

HOZKAILUA AFC-185

320 €

aspes

2 ANU

144
x
55
x
60

A Saliapen energetikoa

HOZKAILUA AFP-144

205 €

aspes

2 ANU

Parasonic

TX-42 PXR 725 €
TX-37 PXR 645 €
TX-32 LED 525 €

REMOVE PLANA

GARBIGAILUAK
ONTZI-GARBIGAILUAK
HOZKAILUA
IZOZKAILUA

A -85 €
A+ -105 €

Europa Batasunaren arauetara egokituak ezarriak diren beren bosteko energia kontsumoaren arabera energia berriztatzen.

A+++ 70%
A++ 45%
A+ 25%

Biltegiako prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zafeta eta ezagut gaitzazu, Katalde poligonoan 3, Roneo ondoan.

Katalde poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Fax: 943 77 13 13 Orduetgia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOZETAN ZABALIK

Elgoibarretik 15 minutura, autopista alboan!

ELGOIBARKO UDALAK JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE HERRITAR GUZTIOI

Gabon Zaharretako Feria



ABENDUAK **27**
LARUNBATA

"Gabonetarako eduki
prest euskal jantzia"



Elgoibarko Udala
eta Kultura Saia



Eusko Jaurlaritza